

A) PLANTEAMENDU OROKORRA	1
1.- EKONOMIAREN ETORKIZUNA IRAGARTZEKO ZAILTASUNA ETA BEHARRIZANA	1
2.- ETORKIZUNAREN EZAUGARRI BATZUK	2
3.- EKINTZA POLITIKOA ESTRATEGIA GISA: "SOR DAITEZKEEN BAINA SORTU NAHI EZ DIREN ESZENATOKIEN ORDEZ, SOR DAITEZKEEN ETA SORTU NAHI DIREN ESZENATOKIAK LORTZEA"	6
4.- ABERTZALETASUNA ALDAKETA ERAGILEA DEN ALDETIK: INTEGRATZAILEA, ELKARTASUNAREN ALDEKOA ETA JASANBERA	7
5.- EUROPA, INTEGRAZIORAKO ETA GARAPENERAKO EREMUA	9
 B) DIAGNOSTIKOA. NON GAUDE?.....	12
1.- EUROPAREN GERTAKIZUNAK	12
2.- EKONOMIAREN ARDATZAREN ALDAKETA	16
3.- EUSKAL EKONOMIAREN EGOERA	17
4.- EUSKAL EKONOMIA ETA GIZARTEA	21
 C) ABERTZALETASUNAK EGIN DUEN APOSTUA	25
1.- ENPLEGUA SORTZEKO ETA GIZARTEAN BARNE LOTURA LORTZEKO ESTRATEGIA.....	25
2.- OHI EZ BEZALAKO GIZARTE ELKARRIZKETARAKO EREDUAREN EZARPENA	27
3.- EUSKAL HERRI-ARLOAREN ESTRATEGIA	30
 D) ABERTZALETASUN IREKI ETA TOLERANTEA, GIZARTE JUSTIZIAREN BERMEA.....	33

A) PLANTEAMENDU OROKORRA

1.-EKONOMIAREN ETORKIZUNA IRAGARTZEKO ZAILTASUNA ETA BEHARRIZANA

Etorkizuna ez dago inon idatzita. Hauxe da etorkizunaren aztertzaileek gustokoen duten esakunea, horiek ez baitute determinismo historikoan sinesten eta uste baitute gu orain egiten ari garenaren arabera izango dela hemendik urte batzuetara gertatuko dena. Horixe da Euzko Alderdi Jeltzaleak eta horren politika-egitasmoarekiko konpromezua hartu duten pertsonen izan behar duten izpiritua. Gure erakunde politikoak eragina izan nahi du gauzen bilakaeran. Zertarako da, bestela, Alderdia? Uste izango bagenu ezin dela ezer egin, ahal den moduan bizitzen eta gure egunen amaierari itxaroten ari izango ginateke, ezer egin gabe eta gure etorkizun errukigabea onartuta.

Gaurtik bertatik hasita, etorkizuna irabaztea da pertsonen eta herrien ongizatea eta oparotasuna lortzeko biderik eraginkorrena.

Etorkizuna, oro har, eta ekonomiaren etorkizuna, bereziki, ez da ziurra eta joera eta indar batzuei loturik dago; gainera, azken horien eragina zehaztea ez da lan erraza.

Geroago konplexuagoa den mundu honetan, izan ere nazioarteko dinamikek pilatu eta elkarren aurka kotzen dute, garrantzitsuena ez da gauzek nola amaituko duten jakitea, baizik eta ulertzea orain arte elkarren aurkakotzat eduki ditugun kontzeptuek (lana/kapitala, enpresa pribatua/sektore publikoa, protekzionismoa/merkatuen liberalizazioa, araupetzea/merkatu askea) etorkizunean elkarrekin bizi beharko dutela eta elkarren osagarriak izango direla.

Dena dela, Euzko Alderdi Jeltzalearentzat benetan pozgarria da politikaren estrategiak finkatzea, gizatasun handiagoko gizarte garatuago bat lortzeko eta bertan bakean eta sumindurarik gabe bizi ahal izateko.

Etorkizuna iragartzea ez da beti asmatzea. Batzuetan kasualitate hutsaren ondorioa besterik ez da izaten. Iragartzea eszenatoki sinesgarri batzuk marraztea da, horietan politikaren eta ekonomiaren arloetan apostuak egiteko. Gainera, apostu horiekin Euskadiren garapena jokuan jartzen dugu. Hau da, utopikoa dena egingarri bihurtu nahi dugu.

Gerra hotza desagertu ondoren, "mundu ordena berri" baten aurrean gaude, eta are gehiago, planeta nahasi eta banatu baten aurrean. Eta bertan dauden arazoak ikusirik, euskal gizarteak, berak osorik, eta Euzko Alderdi Jeltzaleak arazo horiek aintzat hartu behar dituzte.

Orain dela 65 urte, ondokoa irakur zitekeen The Economist aldizkarian:
"Ekonomiaren arloan, mundua jarduera bakar eta orobiltzailearen unitate batean antolatu da. Politikaren arloan, hirurogei edo hirurogeita hamar Nazio estatu burujabeetan banaturik egoteaz gain, nazioak gero eta txikiagoak eta ugariagoak egin dira eta nazio kontzientziak zuzpertzeko egin dira".

Benetan esanguratsua da orainaren eta iraganaren arteko paralelismoa: badirudi arazo eta egoera eurak agertzen ari direla behin eta berriro. Hori dela eta, iraganeko esperientziatik ikasi behar dugu.

Ekonomiaren nazioarteratzeak, alde homogenoak agertzeak, teknologiaren berrikuntzak etab. aurrerabideak finkatzen dituzte, baina, aldi berean, zalantzak ere sortarazten dituzte, antzinakotik berrira bihurtzerakoan. Beharbada, unerik latzenetako batean gaude, zeren eta ez baitaukagu inolako eredurik aldaketa diseinatu ahal izateko. Ekintzak gehiago egiten dio hausnarketari, eta hortaz, ez ditugu ekintzen ondorioak kontrolatzen. Berrikuntzaren alde jardun behar dugu eta aldaketei aurrea hartu behar diegu, erronka hau gainditu nahi badugu. Gainera, ezin ditugu ezer egin gabe ezinbesteko aldaketak onartu, baizik eta aldaketa horiek zentzuzkoak izan daitezela eta gure kulturen eta gure balioen kodean barnera daitezela lortu behar dugu. Hori egin ezean, kolonizazio huts batean eroriko ginateke, etorkizuneko eraldaketa sakonen balioak inolako hausnarketarik egin gabe onartzetik datorren kolonizazio batean.

2.-ETORKIZUNAREN EZAUGARRI BATZUK

Esan dugun bezala, etorkizuna "kontrolatzeko" edo eszenatoki sinesgarrienak diseinatu ahal izateko, sakon-sakonean dauden eta mehatxatzen gaituzten joera edo indar eragileak zeintzuk diren jakin behar dugu. Gure egoeratik, horietako batzuk aldatzea arraz zaila da eta, beraz, barneratu egin beharko ditugu, horiek gure ekonomian eta gizartearen izan ditzaketen eragin onak eta txarrak kasu batzuetan probetxatuak izan daitezen eta beste batzuetan ahalik eta gehien motelduak eta arinduak.

Munduan, etorkizunaren ezaugarrietako batzuk ondokoak dira:

a) Demografiaren hazkunde ikaragarria eta herri aberats eta behartsuen artean gero eta handiagoak diren demografiatzko desorekak.

1825ean, munduan 1.000 milioi biztanle zeuden. Hurrengo 100 urteetan, biztanle kopuru hori bi aldiz handiago egin zen, hau da, 2.000 milioi biztanle izatera heldu zen; hurrengo mendearen erdialdean, 1925etik 1976ra, berriz bikoiztu zen eta 4.000 milioitara heldu zen. Batz bestea, 2050ean, lurrean 12.500 milioi biztanle egongo dira. Eduki dezagun gogoan gaur egun 5.800 milioi baino ez garela eta hainbat arazo ditugula janariekin, etxebizitzekin, osasunarekin eta hezkuntzarekin.

Demografiaren hazkunde ikaragarri hau planeta honen zati handi batean gertatzen ari da, eta gainera, heriotza-tasaren murrizpenarekin eta teknologiaren berrikuntza izugarri batekin batera.

Munduan gero eta ezberdintasun nabariagoa eta handiagoa dago aberastasuna, teknologia, osasun ona eta bestelako onura batzuk dauden alde txikiaren eta planetaren gainerako aldearen artean, hau da, gero eta hazkunde handiagoa duen, baina inolako ongizate, eskubide edo onurarik ez duen aldearen artean, eta hori benetan jasangaitza eta arriskutsua da. Kezkagarria da ikustea nola berriro ezin

daitezkeen natur baliabideak xahutzea eta herri garatuetako hiri eta industrien kutsadura, batetik, eta garatzeko bidean dauden herrietako demografiaren hazkundera eta pobrezia, bestetik, naturaren ezabaketa azkarraren eta gizartearen antolamenduari eta nazioarteko sistemaren orekari eragiten dieten tentsio eta gatazken funtsezko kariak dira.

Planetako biztanle gehienak biziri iraun ezinik eta beharrean bizi dira, horietariko gehienak Hirugarren Mundua esaten zaion horretan, eta gure ustez egoera horrek arreta berezia merezi du, gure gizarte "garatuaren" gizarte egitatea zuzen aztertzeko.

Herri garatuen -gu ere horietarikotzat dugu geure burua, nahiko harro gainera- ongizatea, oparotasuna eta egiturazko kontsumozaletasuna ez datoz soilik enpresa lehiakortasunetik, gure ekoizkinen kalitatetik eta gure ekoizleen lan-gaitasunetik. Horrela pentsatzea engainagarria litzateke eta hipokresiaz bizi izatera eraman gaitzake; gainera, "egia" ere bihur liteke azkenean, geure burua bidezkotu eta kontzientziak lasaitzeko.

Errealitatea gordin-gordin esateko, gu eroso asko eta gauzak gozatuz bizi bagara, batez ere beste batzuk behar askorekin edo pobrezia gorrian bizi direlako bizi gara. Eran-merrana badirudi ere, halaxe da, errealitatea oso tristea da. Herri garatuek, are gaur egun ere, aginte eta ezarpen harremanak dituzte garatzeko bidean dauden herriekin. Iparra-Hegoa harremanak ez dira parekoen artekoak, menpetasunekoak baizik, nagusiak beti ere herri aberatsak direla. Gure ongizate estatua ez da benetan halakoa. Oinarria batzuen txirotasuna da, gehienena; onuradunak mendebaldeko zibilazioaren ordezkariak dira, gutxiengoa besteen aldean

Baldin eta sistema ekonomikoa, teknologiaren aurrerapenak eta ekonomiaren egiturei dagozkien inguruabar guztiak nazioartekotuta badaude, eta guk hala aintzatesten dugu eta gureganatzen, gizartearen antolamendurako planteamendua egiteko ere munduko biztanle gehienek pairatzen duten injustizia eta pobrezia gureganatu behar ditugu. Gure Alderdiaren ardatza beti izan den etika humanista eta kristauak horixe eskatzen digu. Ongizatea mundu osora zabaldu behar dugu. Ezin xahutu dezakegu arinki, milioika lagunek bizi izateko gutxien-gutxienik behar dituztenak ezin eskuratu dituztela (janariak, osasuna,...). Garapenaren kontzeptua aztertu eta beste era batetan planteatu behar dugu, beraren edukinak etikoagoak izan daitezen, ekonomi mozkinetara horren lotuak egon beharrean. Ekonomiaren ordena berrian, garapen hainbanatua bultzatu behar dugu, denak parekoak izan daitezen eta herri aberatsek zenbait pribilejio eta txarto ulertutako erosotasuni uko egin diezaieten, herri txiroen mesederako.

Gure Herriak ezin dio uko egin bere europartasunari, ez dio uko egin behar, baina, haatik, ez ditugu nahasi behar europeismoa, horren kultur eta politika esanahi positiboa gogoan hartuta, eta eurozentrismo kaltegarria, urrezko kaiolan giltzapetuko gintuzkeena, guk geuk zuzen eragin dugun egoerari ez ikusi irudi eginez. Hainbatetan berbabide izaten dugun Mundua de Herriska hala izango bada, gizarte gaiei ere lekua eman behar zaie, hori gabe gizateriaren garapenak berekin izango duelako injustiziaren zama, eta zama hori hain izango da astuna, ezen munduko egungo oreka itxurazko eta urduritsua arriskuan egongo baita.

b) Ingurugiroaren erronkak.

Aurreko mende erdialdetik hona industri isurketak haziz joan dira, eta horrek hurrengo urteetan eragin izugarria izango du. Gizakiok gero eta eraso gehiago egiten dizkiogu naturari. Herrialde oso asko baso gabe geratu dira azken hamarkadetan.

Ingurugiroaren arazo larrienak ondokoak dira eta izango dira:

v Lur osoa berotzea eta, ondorioz, itsasoak gora egitea eta planeta basomortu bihurtzea etengabe.

v Ozono geruza urratzea, eta ondorioz, horrek eragingo dituen gaisotasunak eta minbiziak.

v Euri azidoa, aire kutsatua eta basoak etengabe eta azkar desagertzea.

v Uraren eta itsasoen kutsadura.

v Lurzorua basamortu bihurtzea eta emankortasuna galtzea.

v Hondamendi ekologikoak herri industrializatueta: ezbehar nuklearrak, petroliountzi handiak hondoratzea, ezbeharak olitutueta, edo saio nuklearreta, etab.

v Baso tropikalak desagertzea eta, ondorioz, lurraren birikia eta aniztasun biologikoa deuseztatzea, espezie bizidunetarik %90a baino gehiago oihan horietan bizi baitira.

Atmosfera kutsatzea edo lurrak eta urak narriatzea, eta natur baliabideak agortzea arazo ezagunak dira kontinente guztietan, horren arabera, egongo al da orokortasunik konponbideez? Guk baietz uste dugu, alegia, ingurugiroa harrapakari asmoz barik begirunez eta bera sustatu eta bultzatzen duela erabiltzen duen ekonomi hazkundera formulatu eta gauzatu behar dela.

c) Teknologiaren eraginez ohiko lan batzuk alferrikakoak dira eta, horien orde, guztiz berriak diren ekoizpen-sistemak ezarri dira.

Teknologiaren aurrerapenak, askoren ustez, gero eta kontsumorako aukera gehiago sortarazten ditu, bai kalitateari, bai aniztasunari dagokionez. Baina aurrerapen horrek hainbat arlotan ere nabaritzen da, alegia, bizimoduan, etxebizitzan, garraioan, komunikabideetan, ekoizpen- prozesuaren antolakuntzan, bizi itxaropenean, ugalkortasun tasen beherakadan, ingurugiroaren hondamendian etab. Beraz, prozesu hori etengabeko eraldaketa prozesu bat dela esan daiteke eta gizartean eragin sakona izango du, konpondu ezin izango dena.

Teknologian lau arlo berezi daude. Arlo horiek garapenerako duten ahalmen eskerga dela eta, ondokoak dira gizartea erro-errotik eraldatuko dutenak:

1) Informazioaren teknologiak: Teknologia berrietarik garrantzitsuenak informazioaren arlokoak dira. Iraultza postindustrialaren protagonista nagusiak dira eta neurri handian beste teknologiak beraiei esker garatu dira. Esaterako, horietaz baliaturik jarraikoak lor daitezke:

- Fabrikazioko sistema azkarrak, ekoizkortasun handikoak eta oso malguak.

- Enpresak lankidetzaren prozesu bateratu bihurtzea; hala pertsonen sormena eta esperientzia hobeto aprobetxatuko da.
- Lan-denbora, prestakuntza-denbora eta aisialdia geroago eta uztartuago egotea.

Halaber, telekomunikazioak gizateriaren ekonomi eta gizarte jardura guztiak iraultzen ari dira. Oso azkar goaz informazioaren gizarterantz; gizarte horretan planeta osoko gizakiak egongo dira harremanetan.

Horren eragin hain izango da handia, ezen laster esan ahal izango baitugu gizarte edo herri batek etorkizun ona eduki dezan, beharrezkoa izango dela informazioa menperatzea eta kudeatzea, ekonomia, informazioa eta aukerak haretzen pentzutan egongo baitira.

- 2) Material berriak, metalikoak (aleazioak berriak) zein ez-metalikoak (matriz polimeriko- dunak, konposatuak, zeramika, etab...); horien ezaugarriak esker hainbat posibilitate berri dituzte industrien, airuntzintzako enpresek, ehuntzintzakoek, medikuntzakoek, eta gainerakoek.
- 3) Bioteknologia, ingeniariaren genetikoan, industri prozesuetan eta ingurugiroaren lehengoratzetan aplikaturik.

Geneen manipulazioari esker, bioteknologiaren aplikazio berriak sortuko dira nekazaritzarako, abeltzaintzarako, arrantzarako eta medikuntzarako.

- 4) Ingurugiroaren arloko teknologiak, ezinbestekoak izango direnak lehengai berriztaezinak tratatu, birziklatu eta berreskuratzeko edo hondakin toxiko eta arrikutsuak inertizatu eta baloratzeko.

d) Ekonomiaren mundu zabalera hedatzea eta nazioez gairdiko korporazioak.

Ekonomiaren buruaskitasunaren ohiko kontzeptua amaitu egin da. Ekonomiaren eredia mundu zabalera hedatzeak, hala nahi baitute iparramerikarrek, japoniarrek eta Europako Batasuneko kideek herrialde multzoak zehazteko orduan, ekonomiaren arloan erakunde jakin batzuk arbuatzea dakar. Erakunde horiek, politikaren arloan jarduten duten mugek edo estatu-nazio ereduak adibidez, askotan benetako aldaketa nabariak sortarazten dituzte.

Ekonomia nazioartean hedatzea ondokoan ageri da: nazioarteko merkataritzaren bolumenean, zeren eta hau laurogeiko hamarkadaren erdialdetik aurrera munduko benetako BEGaren hazkundera gairditzaren ari baita; eta beste alde batetik, kapitalaren mugimenduen, bai zuzeneko inbertsioetan, bai karterako inbertsioetan, nazioarteko maileguen, eta espekulaziozko edo tartekaritzazko mugimenduen gehikuntza izugarrian ere ageri da.

Nazioez gairdiko enpresen garapena izango da, ziuraski, merkatu-ekonomien egitura gertatu den aldaketa nagusienetako bat azken mende erdi honetan. Mundu Bankuaren ustez, mundu merkataritzaren %70a nazioez gairdiko enpresek kudeatzen dute. Enpresa horiek zuzenean edo zeharrean 65 milioi pertsona baino gehiago enplegatzen dituzte, hau da, ELGEko enplegu osoaren %15a gutxi gora-behera.

e) Nazioarteko finantzetan orekarik ezaren arriskua aregotzea.

Finantza arloan gorabehera handiak sortzeko arriskua dago, batez ere, eguneko 24 orduetan etengabe jarduten duen eta herrialde gehienen BEGa baino diru kopuru handiagoak sortzen dituen merkataritza elektronikoinformatizatuaren eraginez. Kontrol ofizial berrienak alferrikakoak izan dira kapital-mugimendu horiek kontrolatzeko. Trukaneurriaren oraintsuko krisietan argi eta garbi geratu den legez, Banku Zentral batek ere ezin ditu onartu epe laburreko korritu tasen igoerak, mugimendu horiei aurre egiteko beharrezkoak badira ere.

Munduko burtsetan atzerriko monetak egunean-egunean izaten dituen toki aldaketek, gutxi gora-behera, bilioi bat dolarreko kopuruak eragiten dituzten, hau da, Espainiako BEG bi aldiz (60 bilioi peseta) eta Euskal Herriko BEG hogeita hamar aldiz.

G-3 taldeko estatuak (EEBB, Japonia eta Alemania) lankidetzan arituko dira, hau da euren moneta politikak koordinatuko dituzte, korritu-tasen arloko helburuak beste herri batzuen politiken kaltetan lor ez ditzaten.

f) Nazioarteko monetaren ordena berri baterantz.

1970etik aurrera ekonomi hazkunde iraunkorra lortzeko suertatu diren zailtasunak kontutan hartzen badira, argi dago zailtasun horiek finantzek eta espekulazioak menperatzen duten mundu sistema baten egongaitzasunari gero eta lotuago daudela. Nazioarteko eta Europako monetaren sistemaren krisitik, dirudienez, ondo probetxa daitezkeen emaitzak lortu dira, hori berori berriz eraiki ahal izateko.

3.-EKINTZA POLITIKOA ESTRATEGIA GISA: "SOR DAITEZKEEN BAINA SORTU NAHI EZ DIREN ESZENATOKIEN ORDEZ, SORTU NAHI DIREN ESZENATOKIAK LORTZEA"

Mehatxatzen gaituzten indarrak zeintzuk diren badakigu, ekintza politikoa erabiliz estrategia bat diseinatu behar dugu, sor daitezkeen baina sortu nahi ez diren eszenatokiak ordeztu, sor daitezkeen eta sortu nahi diren eszenatokiak lortzeko. Gure helburua ondokoa da: Euskadi aurrerakoia izan dadila eta European integraturik egon dadila, barne eta kanpo eremuetan elkartasuna erakus dezala, eta aurrerantz doan baina iragana ahazten ez duen herri baten nortasunaren ezaugarriak gorde ditzala.

Pertsona eta enpresa batzuk XXI. mendeari aurre egiteko moduan badaude ere, beste herrialde asko ez daude egoera horretan. Etorkizuneko erronkei aurre egiteko egoera onean egoteko, herrialdeek ondokoak izan beharko dituzte: aurrezpen tasa altuak, lantegi eta ekipo berrietan inbertsio altuak, hezkuntza sistema bikainak, batez ere lanbide heziketan, lan-indar kualifikatua eta zaharkiturik geratzen diren langileak birziklatzeko sistema onak, enpresen aldetik kultura eta gaitasun teknikoa, ondo diseinaturiko eta balio erantsi

handiko manufakturen ekoizpenarekiko gizarte konpromezua, "agerikoak" diren eta kultura homogenotasuna eta koherentzia etnikoa duten ondasunetan merkataritzazko superabitak.

Dena dela, teknologiaren arloan ondo prestaturik dauden herrialdeek eurek ere zailtasun handiak dituzte aldaketa orokorreko indar batzuei eurak bakarrik aurre egiteko, adibidez, jaiotza-tasen beherakadari, migrazio mugimenduei, finantzen egongaiztasunari eta espekulazioa edo lehen sektoreko (nekazaritza, arrantza etab.) erkidegoak ahalik eta ondoen babesteko beharrianari.

Zer egin ote daiteke? Zer egin dezakete herrialdeek hurrengo menderako hobeto prestatuta egoteko? Zein ote da estrategia?

Gizarteek XXI. mendeari aurre egiteko erronka aintzat hartu behar dute, batez ere, ondoko hiru kari nagusi hauengatik:

- a) Lehenengo eta behin, gizartearen prestatzea, lehiakorra eta moldakorra, eta teknologia berrien maila bereganatzeko gai izan dadin.
- b) Bigarrenik, demografiaren eta ingurugiroaren erronkei erantzun eta "hazkunde iraunkorra" lortzeko diren proposamenak aintzat hartu beharra; hazkunde horri esker, ekonomiaren arloko eragingarritasunaz gain, gizartearen ekitatea, ingurugiroaren bideragarritasuna eta ipar-hegoaren arteko oreka gordetzea lortu beharko da.
- c) Hirugarrenik, politikaren arloko egongaiztasuna eta bapateko gatazkak sortzeko aukerak gutxitzeko premia. Gizakien gizartearen barnean gero eta presio gehiago dagoen heinean (demografiaren hazkunde azkarra, baliabideen agortzea, langabezia, migrazioak, hezkuntza eza), are presio gehiago sortuko dira, gizartean eta politikaren arloan gatazkak sortaraziko dituztenak.

Estrategi lerro hauek badute zailtasunik; ezin dugu uste izan ezetz.

Lehen zailtasuna politika praktikoa ikuspuntutik proposatu diren eraldaketak gauzatzean eta horien erritmoan datza. Gizakiek ez dute epe laburreko sakrifizio egin nahi, horiek agian epe luzean hobekuntza eta guztion ongizatea lortzeko badira ere. Eta politikarien ohiko ikuspegiak are laburragoak dira. Hiritarrek eta politikoez ez dute aldaketarik abiarazi nahi, oro har, horiek gizabanakoengan epe laburrean kostuak sortzen badituzte, gero epe luzera onura ekarriko badute ere.

Bigarren zailtasunak ondokoa aipatzen du: Estatuak mehatxuei aurre egiteko erabiltzen dituzten mekanismoak ez direla egokiak hemen aipatu diren erronka batzuentzat. Adibidez, planeta osoaren berotzea eteteko, nazioarteko lankidetzaren behar-beharrezkoa da; errotoak erabiltzea, aldiz, enpresei dagokien lana da. Bi kasu horietan, Estatua txikiegia da edo, bestela, handiegia da.

Gizarte batek XXI. mendeko ondo prestaturik egon nahi badu, ondoko gaiak kontutan hartzen dituen egitarau bati ekin beharko dio:

- a) Ingurugiroari egiten ari zaion kalte etengabea eteteko eraldaketak.

- b) Gizartea bera teknologiaren eta industriaren arloan eta ekoizpen orokorreko aldi honetan lehiakorragoa izan dadila lortzea; horretarako bere teknikak eta azpiegiturak berritu beharko ditu.
- c) Demografiaren hazkunde izugarriari aurre egitea. Garapenerako ekonomi laguntza. Teknolo- giaren, lurralde plangintzaren, ingurugiroaren eta biztanlearen eta abarren transferentziak.
- d) Hezkuntzaren eginkizuna eta hezkuntz sistemen berregituraketa. *"Gizarte osoa dago hezkuntzaren eta hondamendiaren arteko lasterketa batean"*.
- e) Modernizazioaren eta administrazio egituren eta kudeaketaren eraldaketaren prozesua.
- f) Balio jakin batzuk bultzatzea, hiritarren artean elkartasun handiagoa egon dadila bermatzeko.
- g) Herriko aberastasuna zuzen banatzea ahalbidetzen duten eta, ondorioz, gizartearen barne kohesioa bermatzen duten zerga eta aurrekontu mekanismoak ezartzea.

Estrategia honek ekintzaren aldeko jarrera egon dadila eskatzen du, alegia, gertakariei aurrea hartu eta ekinbideak markatzen dituen, aldaketetan zabal-zabal eta kontserbakierarik gabe aintzindari izateko.

Garai batean, gizarteek ezer egin gabe onartzen zituzten eraldaketak. Garai horiek, orain, atzean geratu dira. Aldaketak ezin dira besterik gabe onartu; gizarteak zentzutu eta nazioartera zabalarazi behar ditu. Horretan, abertzaletasunak nahitaezko erantzukizuna hartu behar du.

4.-ABERTZALETASUNA ALDAKETA ERAGILEA DEN ALDETIK: INTEGRATZAILEA, ELKARTASUNAREN ALDEKOA ETA JASANBERA

Askotan gogorarazten da Gramsci-ren esakunea; horren arabera, sistema bat desagertzeaz dagoenean eta sistema berriaren koordinatuak oraindik zehaztu gabe daudenean, krisia sortzen da. Beraz, begi bistakoa da gaur egun aldaketa sakonak eta gogorrak izaten ari garela, eta ohiko ideiek indarra galdu dutela eta laster jartzen direla zalantzan.

Norberekeria hiritarren sentimenduen eremuan nagusitu egin da. Gizartearen ohiturak pribatizatu egin dira, hiritarrak eta erakundeak elkarrengandik gero eta urrunago daude, post- modernitateko gizabanakoak gizartean gero eta parte txikiagoa hartzen du, eguneroko bizitzak urduritasuna eragiten du eta elkarteak osotzearen aurka gero eta joera gehiago dago. Horiek guztiak gizartean gero eta herrizaletasun txikiagoa egotea eragiten ari dira. Komunikazio orobiltzaileak, teknologiaren eta ekonomiaren arloetako elkartrukaketak nazioartera hedatzeak eta aberastasunaren banaketa-sistema biztanle jakin batzuentzat bat ere zuzena ez izateak eragin ditu joera horiek. Eta gainera, joera horiek gero eta hiritar

gehiagoren kontzientzia barneratzen ari dira apurka-apurka baina etengabe. Post-modernitateko joera horien ezaugarrien artean, herrien garapenerako nagusi izan diren utopiak hondatzeko prozesuak abiarazten dituztenak aipa daitezke.

Ongizatearen Estatua krisian dagoenez eta herrialde garatuenean abiarazi zuten ekonomiaren ereduak agortzen ari denez gero, gizartearen bilakaerak herrialdeen aurrerapena dakarrela ziurtatzea oso zaila da. Bilakaerak erakusten du aurrerapena ez dela denontzat berdina. Azken urteotan bata bestearen atzean gertatu diren krisi ekonomikoek, geroago eta ziklo laburragoetan gainera, eta demografiaren eta teknologiaren aldaketek gizartearen sektore batzuk baztertu dituzte eta horiek gainerakoak baino gaizkiago bizi izatea eragin dute.

Nazioen eta beraien garapen ekonomiaren etorkizunaz gaur egun dagoen planteamenduaren arabera Europar lortu den Ongizatearen Estatuaren eta nazioarteko merkatuaren indar eta dinamismoaren arteko elkarbizitza zaila izango da; nazioarteko merkatua ekonomi harremanen erregulatzailea ezezik gizarte ondasunak eta, horrenbestez, Ongizatearen Estatuaren gradua eta intentsitatea bera ere banatzeko mekanismoa ere badela uste da. Merkatuaren protagonismoari buruzko teorizazio hori liberalegia da, eta are elkartasun gabea ere. Balore gabeko merkatua azkenean erregela gabeko eremu bihurtzen da, eta bertan interesen konsortzio handien nahikuneak eta ahalak ezer ezean uzten dute ekonomi harremanek izan behar duten gizarte izaera. Horregatik, ez dugu oker jokatu behar eta pentsatu ekonomi trukaketan nazioartetatzeko eta elkartasuna eta aberastasunaren banaketa zuzena bateraezina direla.

Ildo horri jarraituz, ideologiaren desegituraketa gaur egun ageri-agerian dagoen arrisku bat da. Utopia jakin batzuk lortzearen aldeko konpromezua desagertu egin da. Gizartearen sakrifizioa eta borondatea, antza denez, iraganeko kontuak dira. Hitz batean, gizabanakoen interesak gailendu dira, gizarte osoaren interesen aldean. Norberaren onura guztion ongizatearen gainetik dago. Etsipena eta interes eza nagusi egin dira, alderdietan askatasunez eta demokraziaz parte hartzearen aldean. Toki bateko kulturarenganako sentimendua, hau da, talde zehatz baten barruan egotearen sentimendua galtzen ari da, nortasun zehazkabe eta orokor baten alde. Beraz, iraun nahi duen edozein gizarte erakunde baten gakoetakoa bat zalantzan dago: eginkizun honetan "guztioak gaude batera" esakunean oinarritzen den printzipio abertzalea kontutan hartuta, bere kide guztiei aberastasuna, berdintasuna eta ongizatea sortaraztea.

Abertzaletasunak konponbidea eman behar dio arazo horri eta herriari ilusioa ematen dioten helburuak aurkeztu, bai eta, zentzurik zabalenean, gertatuko diren aldaketen eragile eraginkorra izan ere. Ongizatearen Estatuaren krisiak frogatu du Estatu-nazioak, gaur arte ezagutu dugun bezala, porrot egin duela elkartasunerako eremua izateko orduan. Porrot hori eragin duten kariak asko dira. Ildo horretatik, esperientziarik hurbilenak erakutsi digu eremu zabal batzuk, esaterako Europako Batasunak, ez direla gai elkartasuna era egoki batean egituratzeko. Esperientzia horrexek ere azaldu digu eremu txikiagoetan, hau da, erakunde txikiagoetan, batez ere bertako gehienek erakunde horietako kide direlako kontzientzia dutenean, elkartasunaren aldeko politikak egituratzeko errazagoa dela. Beste era batera esanda, estatu gabeko abertzaletasunak, gizartearen barne lotura handiagoko eta elkarta- sunerako eremuak eratzeke orduan, nagusi direla. Ezin da esan norberekoikeria denik, ezta gainontzeko baten lepotik pribilegiarik bilatu nahia edo batzuek irabaztea eta besteek galtzea ere, baizik eta Tocqueville-ren eskaunearekin ados egotea, alegia, "norberaren onura ondo ulertuan".

Post-modernitateko abertzaletasunak funtsezko lau eginkizun burutu behar ditu, ondokoa lortu nahi badu: aberriaren leialtasuna tresna eraginkorra eta indartsua izatea, sistematik onura handiena lortzen dutenek pribilegio batzuk behartsuenen alde gal ditzaten.

Hortaz, abertzaletasunak balio batzuk zabalarazi behar ditu, hala nola, jasamena, bai bere egitasmoa atzerrian defendatzeko orduan, bai bere barnean suertatzen diren arazoei ekiteko orduan. Planteamenduak ezartzea, dogmatismoa eta nagusikeria ez dira behar bezain gidari adituak hura lortzeko. Aurkako planteamenduak ere kontutan hartu behar dira, horietako eragilerik onenak hartzeko eta, horretara, jatorrizko egitasmoa aberasteko. Hori egiten badugu, gure aberriak bizirik iraun dadila bermatuko dugu.

Abertzaletasunak eredugarritasunaren balioa zabalarazi behar du. Ezin da onartu sistema batek gizarteari eredugarritasuna eskatzea eta berak bere ordezkari horixe bera ez eskatzea; horretarako, gehiegikeriak, xahukeria, bezeroei mesede bereziak egitea eta ustelkeria politikoa desagertarazi behar dira. Oraintsura arte, horrelako portaerak ugariak izan dira gure eremurik hurbilenean eta bai gure artean ere, nahiz eta askoz bakanagoak izan. Etika guztiak ondokoa oinarritu behar dira: aberriaren eraikintzarako egitasmoa gidatzen duenak eredugarri izan behar duela aldaketen mundu honetan. Eta eredugarritasunaren barruan portaera zintzo, zorrotz, gogor eta eraginkorrak erakutsi behar dira eta hiritar guztiontzako prestakuntza etengabea egon dadila sustatu behar da, ondo egiten diren gauzak kalitatezkoak direla uste dugulako.

Abertzaleontzat elkartasuna aberastasuna birbanatzeko mekanismo eraginkorra eta zuzena da. Abertzaletasunak bizirik irauteko prozesua egingarria izan dadin, barne elkartasuna butzatuko duten mekanismoak sortarazi behar dira. Elkartasuna sustatzea da gaur egun gizartean haziz doan norberekeriaren, norberekoikeriaren eta darwinismoaren aurka egiteko bermerik onena. Hitz batean, ondo erabilitako eta egituratutako elkartasunari esker lortuko dugu gizarte integratuago, zuzenago eta, ondorioz, elkar lotuago bat.

Azkenik, abertzaletasunak aberri barrukoek sakrifizioa burutzea eskatu behar du, horixe baita aberri baten sustraiak eta bere-bereak diren ondasun bereziak eratzeko modua. Onura handiena dutenek behartsuenen alde egin behar dute sakrifizio, eta horri esker lortuko da aberriaren barne lotura. Horri esker, herrialdeak orekarekin eta gatazkarik gabe garatu ahal izan dira. Hortaz, horrek, hau da, guztientzako etorkizuna eta aurrerapena lortu nahiak, bertako biztanleak gogoberotu ditu, gizarte integratu bat eraiki eta bertan bizi daitezten. Beraz, abertzaletasunaren helburuetako bat da ondasunak era orekatsuan birbanatzea biztanle guztien artean. Gizartean eta ekonomian dauden desberditasunak desagertaraztea demokraziaren balioetako bat da, eta hori horrela dela ulertzen ez bada, abertza- letasunaren beraren oinarria hautsiko da.

5.-EUROPA, INTEGRAZIORAKO ETA GARAPENERAKO EREMUA

Euskal Abertzaletasuna aintzindari izan zen ondokoa adierazi zuenean: Europako herrien etorkizuna Elkarre indartsu eta lotu baten barruan dagoela, nazioartean boterearen eta eraginaren itxuraketak, ordenak eta banaketak eragiten zituen eta gaur egun oraindik eragiten dituen erroinei aurre egin ahal izateko. Hogeita hamargarren hamarkadatik hona,

euskal abertzaleok gure europazaletasuna adierazi dugu eta, gainera, Europaren nortasuna bertako herri guztien loturan oinarritu behar dela ere adierazi dugu.

Europa eraikitzeko, aldiz, beste bide batzuk hartu dira. Estatu-nazioen sendotasunak Europako Batasuna eratu du, eta horrek, gaur egun, krisiaren sintoma larriak ageri ditu. Demokrazi ments kezkarria du eta bere Parlamentuak ez du izen hori merezi. Gainera, ez du oraindik erabaki Batasunaren etorkizuna Europa federal ala konfederal baten eremuan gauzatuko den. Barne harremanetan Estatukideen norberekoikeria nazionala da nagusi, eta ez da gai izan kanpo harremanetarako eta elkartearen segurtasunerako politika bat egituratzeko, ez eta ondoko herrietan gerra odoltsua eragozteko ere.

Ekonomiaren arloan soilik aurreratu da integrazioan, baina oztopo handiak daude, jurisdikzioaren eta zigorraren eta abarren arloan gutxiengoei laguntzeko eta barne segurtasuna bermatzeko gizarte eta kultura politikei ekiteko. Hala ere, biztanleengan zelan edo halan egunero eragina duten erabaki gehienak Bruselan hartzen dira. Gaur egun, Europak gizartearen zati handi batean du eragina. Ezin da ahaztu arazoak aztertu eta bere etorkizunari buruz hausnartu beharra dagoela.

Beraz, Europa da, nahitaez, Abertzaletasuna integratzeko eta garatzeko eremua. Ez da erreza iragartzea nolakoa izango den hurrengo milurteko Europa, baina nazioarteko gertakarien eragin- indarrak, azkenean, sendotu egingo du hau; bestela, Europak nazioartean eragina galduko du, EEBBen, Japoniaren, Txina indartsuaren eta Asiako dragoien indarraren aurrean. Europak europarrek nahi dutena izan behar du. Eta horretarako, beharrezkoa eta premiazkoa da Europaren aldeko errealitatea eta ideia biztanleei hurbiltzea, hau da, sarritan integrazio ekonomiko eta politikoak on baino kalte gehiago egin diela oraindik ere uste duten biztanleei. Europa ez da inoiz potentzia bat izango, ezta herri integratuen erkidego eraginkor bat ere, baldin eta europarrek eurek Europarengan konfiantzarik ez badute. Oraindik ez dago, eta beraz sustatu eta sortarazi egin beharko da, hiritar guztien artean europar kultura eta nortasun bat. Europaren egitasmoa hiritarrei hurbildu behar zaie. Europako hiritarrak hiritartasunari buruzko egitasmo bateraturantz bultzatu behar dira.

Arlo horretan, Espainiako Estatuaren kasua benetan larria izan da. Europako "klub"ean sartzeko zegoen premiaren eraginez, Europari Atxikitzeko Itunben akastuna sinatu zuen, eta horrek ondorio txarrak ekarri ditu ekonomiaren eta gizartearen sektore askorentzat. Mesfindantza handia sortu du, zeren eta Espainiako Gobernuak Europako elkarteei atxikitzea jokaldi politikotzat hartu baitzuen, eta ez Europaren egitasmoarekin bat egiteagatik. "Ahalik eta azkarren eta kosta lain kosta sartzeak" emaitza kaltegarriak ekarri ditu.

Europako Batasunak eraldaketen prozesu orokor bati ekin dio. Eta prozesu hori Estatu- nazioen krisiarekin eta nazio eta herrialde berriak sortzearekin batera suertatu da. Batasuneko herrialdeek eta horren garapen irregularra zuzendu duten Estatu-nazioek bizkortzeko izan duten joeraren aldean, horiek estaturik izan dituzten nazio berriek gora egin dute eta prozesuan integratu eta parte hartu ahal izatea eskatzen dute.

Hortaz, "merkatuaren obsesioa" zuen eta ekonomiaren arloko estrategietan oinarritzen zen Europako Batasunaren eredua agortu egin da. Estatuen borondatez eratutako Europaren eredua agortu egin da, eta aldaketa baten premia handia dago,

borondate horren orde, Europaren aldekoa den eta Estatukideen interes berezietatik urrun dagoen borondate bat egon dadin.

Beraz, premiazkoa eta beharrezkoa da Europa berriaren ereduari buruzko planteamendu berriak mahairatzea. Eredu horrek bere erakundearen demokratizazioan, elkartasuna era eraginkorrago batean egituratzean eta pentsamendua eta kultura berritzean sakondu behar du. Gainera, zalantza handi bat desagertarazi behar du ahalik eta arinen, alegia, batasun politiko bat ala merkatu handi bat lortu nahi ote den. Europako arazo garrantzitsuenetako bat ondokoa da: europazaletasuna onuragarria dela benetan sinesten duten buruzagiak falta ditu. Gaur egun, ez dago benetako buruzagirik, abian dagoen egitasmoa zuzendu eta bideratzeko gai direnik. Hasi den eraikintza bultzatu eta burutzeko behar bezalako ezaugarriak dituzten buruzagiak lortzeko bideak eta bitartekoak sortu behar dira.

Europa ezin eraiki daiteke, eta ez du hori egin behar, merkatu-oinarrien gainean soilik, horrez gainera bere nortasuna zehaztu eta bereizten duen "arima" bilatu behar du. Eta Europa berriz nazionalizatzeko prozesu honetan, gurea bezalako abertzaletasun demokratiko, eraikitzaile ez- baztertzailleek funtsezko eginkizuna dute, beraien integrazioa, barne lotura, egonkortasuna, sendotasuna eta, bereziki, elkartasuna lortzeko.

Hori dela eta, ondo bereiztu behar da zeintzuk diren askatasunaren eta integrazioaren eremuan egon nahi duten abertzaletasunak eta zeintzuk nahiago duten beraien nortasuna eta herri bateko kidea izatearen balioa ezarpena eta biolentzia erabiliz defendatu. Arlo horretan, adibiderik garbiena Balkanetako gerra da. Baina Europako abertzaletasunek ez dute erreferentzi balioen kode bera, ezta kultura bera ere, hau da, herri batzuk askatasuna lortzeko biolentzia eta garbiketa etnikoa erabiltzera bultzatzen dituenak. Ezin dira batzuk eta besteak nahastu, hori etikaren ikuspuntutik arbuigarria eta politikaren ikuspuntutik bidegabea izango litzatekeelako eta, gainera, praktikan ez litzatekeelako eraginkorra izango.

Estatu gabeko abertzaletasun demokratikoek, eta bai beste lurralde-elkarte batzuek ere, Europaren Batasun Politikoan itxaropenerako bide bat dagoela ikusi dute, barne lotura ikuspuntu guztietatik bultzatzeko. Ez da berregin nahi krisian dagoen eskema hori eta, beraz, ez da hamarkada askotan konpondu gabe egon diren arazoak konpondu dituen formula berri-tailerik frogatu nahi. Hitz batean, eta Jose Antonio Agirre Lehendakariak adierazi zuen legez, Euskal Abertzaletasunak lege bidez eskatu du Europako Batasuneko erakundeetan gainerako batasun kideekin "oro berdin" parte hartu ahal izatea.

Estatu barruko elkarteak hiritarren eguneroko arazoak kudeatzeko orain ezagutzen ditugun estatuak baino egokiagoak direla ikusi da. Horixe da, hain zuzen ere, Europa eraikitze- etorkizunaren funtsetako bat. Hau da, Europako Batasunaren etorkizuna ondokoan datza: elkarren osagarri diren elkartasun-eremuen artean barne lotura sortzen jakitean. Horrela, elkarte horiek barne loturarako tresna bihurtzen dira. Helburua ondokoa da: hiritarrek europar egitasmoarekin bat egitea, zeren eta horretara legebidez- kotasun handiagoa emango baitzaio egitasmo horri. Beraz, abertzaletasuna herri bakoitzaren nortasuna Europaren beraren nortasunari lotzeko erabiliko da. Bestela, abertzaletasunek Europako Batasunean jarri dituzten itxaropen guztiak alferrikakoak izango lirateke; gainera, horren adibiderik badago jadanik, eta mota horretako uts egite batek ondorio kezkar- garriak ekarriko lituzke.

Europak, halaber, herrialdeen arteko barne ezberdintasunak argitu behar ditu oraindik. Badago arrisku handi bat, alegia, Iparraldeko herrialdeek hartuko duten erritmoa eta abiadura hegoaldekoenarekin ezin parekatu izatea. Eta Iparraldeko herriak egoera hobean daudenez gero, batez ere Alemania, herri batzuetan nagusitasunerako joerak sortzea ekar dezake. Europak herrialdeen integrazio eta barne loturarako politika bat zehaztu eta egituratu behar du, politika horrek gaur egungo desorekak hauts ditzan. Politika horretako oinarri nagusiak ondokoa izan behar du: Europaren eraikintzak herrialdeen ezberdintasunean oinarritu behar duela. Sorospidea eraginkortasunez ezartzea eta nazionalitateek eta herrialdeek Europa eraikitzeke prozesuan erakunde bidez parte hartzea ezinbesteko elementuak dira, Batasun Politiko benetakoa lortuko badugu.

B) DIAGNOSTIKOA. NON GAUDE?

"Politikan bezala ekonomian ere ez dago ezer ziurrik, ezer ez dakitenek iragarpen irmoak egingo dituztela izan ezik". (J.K.Galbraith)

Gaur egun mundua iraganean inoiz ez bezalako indarra bereganatu duten arazo orokorre jazarri behar zaie. Afrika, Ertamerika, Ekialde Hurbil, India eta Txinako herrialderik behartsuenetan demografi hazkunde ikaragarria izan da, eta horrek gaitz ugari ekarri du: nekazaritzako baliabideak agortu egin dira, ingurugiroa suntsitu, jendetza itzalak lekuz aldatu, politikan eta gizartean egonkor- tasunik eza nagusitu da, etab... Beste alde batetik, ekonomikoki horiek baino aurreratuago dauden gizarteetan teknologiak izan duen gorakada harrigarriak ekoizkortasuna gehitu eta jarduera zaharrei uzteko ahalbidea eman du. Eta arazoak geroago eta larriagoak izateak ezezik beraien arteko lotura estuek ere etorkizunaz hausnar egitean mundu osoa gogoan hartzera behartzen gaituzte.

Ilustrazioaren eta Industri Iraultzaren mendeetan sortu zen aurrerapenari buruzko ikuspegi baikorraren orde orain, mendea bukatzen ari den aldi honetan, erabateko ezezkortasuna zabaltzen ari da Hirugarren Munduaz bestaldean, herri garatuetako hiritarrak ere kezkatutik dituen. Uneotan, herri aurreratuak, eta Europa bereziki, merkatuko ekonomi bat jo dezakeen gaitzik txarrenaren erasoaldi bortitza jasaten ari dira, jende asko lanik gabe egotea. 60ko hamarkadan EMSko herrietako langabezia %2 eta %3aren bitartekoa bazen, 1994an EMSan zeuden 11 herrietarik (Luxemburgo kenduta) bakarrak zuen %7tik beheko langabezia tasa, lauk %7 eta %10a bitartekoa zuten eta erdiek %10tik gorako tasak zituzten (Frantziak eta Danimarkak %12,5 eta Espainiak %24a). Ongizate Estatuaren zerbitzuak murrizteak, eredu bera jartzeak eta lanbideak kolokakoak eta inoizkakoak izateak etsipena areagotzen dute eta sortarazten diharduten European lehengo gizarte kohesioaren orde gizarte mailakatzea agertzen ari da, enplegu iraunkorra dutenen bizitza-maila gora ari da eta ondorioz horien eta luzaroan lanik gabe daudenen arteko zatiketa areagotzen ari da.

Gizarte guztietan aldaketen aurkako kultur oztopoak, eraldaketa orok ordura arteko ohitura, aztura, bizimodu, sineste eta gizarte irizkeriak galbidean jartzen dituelako. Aldaketari abegi ona emateak gizartearen lehentasunak, hezkuntza sistema, kontsumo eta aurrezpen ereduak, norbanakoari buruzko oinarritzko usteak eta norbanakoen eta Estatuaren edo gizartearen arteko harremanak aldatzea ekar dezake.

Estatu Batuek, artean botere militar nahikoa handia dutela, "japoniarren erronkari" eta arlo militarrekin zerikusirik ez duten beste batzuei aurre egin behar dielarik, Europako Elkarrekin bere integrazio egitasmoa konpondu behar du, zalantza ugari dituela eta ekonomia ia bertan behera geldituta dagoela. Maastrichteko Itunbena baldintzak langabezia kosta ahala kosta eta baliabideak xahutuz bete behar omen delako kezka horrek batasunak zein kostu handiak eragin ditzakeen erakusten duten frogak argiak eman dizkie hiritar askori, eta batasun politikoaren eta moneta batasunaren aurkako sentimendu geroago indartsuagoa sortarazi du.

1.-EUROPAREN GERTAKIZUNAK

Huntington Iparramerikako inperialismoaren azken hamarkadotako ideologo nagusiak ondokoa idatzi zuen 1989an: *"Barne-lotura politikoa lortuz gero, Europako Elkarrekin XXI. mendean potentzia gailenetakoa izateko behar bezainbat baliabide eta aberastasun ekonomiko eta behar bezalako teknologia eta indar militarra lituzke. Japonia inbertsioan espezializatu zen, Estatu Batuak kontsumoan eta Sobiet Batasuna armamentoan. Europak hiru arloen arteko oreka lortu du. Japoniaren aldean BEGren portzentaia txikiagoa inbertitzen du ekoizpenean, baina handiagoa Estatu Batuen eta Sobiet Batasunaren aldean. Estatu Batuek baino BEGren portzentaia txikiagoa kontsumitzen du, baina Japoniak eta Sobiet Batasunak baino handiagoa. Estatu Batuek eta Sobiet Batasunak baino arma gutxiago du, baina Japoniak baino gehiago. Mundu osoan (mundu azpigaratuan) jendeak iladak egiten ditu Estatu Batuetako kontsuletxeen aurrean inmigratio- bisatuak lortzeko. Bruselan herriak iladan jarrita daude Elkarrekin sartzeko eskatzen. Gizarte demokratiko aberats, gizartearen aldetik anitz eta ekonomia mistokoz eraturiko federazioa indar ahaltsua litzateke munduan. Baliteke datorren mendea Europaren mendea izatea".*

Europako merkatu batu eraikitzeak helburu bakarra dauka: lehia eta merkatuetako joko askea erraztea. Alabaina, ikuspegi orokorretik koordinazioa nabaritzen da, hots, merkataritza, industria eta teknologia estrategikoaren arloetako politika publikoak, helburutzat konglomeratuak sortzen laguntzea, haien zalantzak murriztea, nazioz gairikoen enpresak erakartzea eta xede eta gogo "europarrak" lantzea dutenak.

Merkatuak are gehiago liberalizatzeko arrazionalitatea eta egitura berriak antolatzea bultzatuko du eta aukera berriak eskainiko ditu eskalako ekonomiak erdiesteko. Zerbitzuzintzetan lehia areagotzeko -batez ere banketxeetan, aseguru konpainietan, informazioaren arloan eta garraioetan- ekonomiaren eraginkortasun orokorra gehituko du eta transakzioengatikoko kostuak gutxituko ditu. Finantza merkatuen liberalizazioak lehiakortasuna sustatuko du baliabideak hobeto banatuz. Eta langileen lekuz aldatzeko eskubideak lan-merkatuen funtzionamendua hobetuko du, batez ere mugitzen direnak profesionariak, espezialistak eta artisauak direnean. Halaber, administrazio publikoek euren eraginkortasuna eta eragingarritasuna erabat hobetu beharko dute nahitaez.

Integrazioan sakontzean makroekonomia askoz iraunkorragoa eta Europa lehiakorra izango diren bezala, herrialdeen arteko desberdintasunak ere areagotu egingo dira, ez bairik gabe.

{ Makroekonomiari buruzko politikak bat etortzeak eta herri mentsei gehienezko mugak jartzeak murriztu egin dezakete nazio politikek herrialde behartsu edo industriagabeen garapena sustatzeko duten eragina.

{ Truke tasak finkoak eta moneta bakarra izatean erabateko zurruntasuna sar dadezake, atzerago dabilzan herri elkartekideen kalterako.

{ Europa soziala sortzeak lanekuaren kostuetan dauden aldeak murriztea eragin dezake artifizialki, eta horrela lan jardura intentsiboetan espezializaturik dauden herrialde behartsuenek duten abantaila ere txikituz joan liteke.

Trukaneurriengatiko krisiek eta oraintsu bizi izan ditugun korritu tasen etengabeko igoerek hain jasanarazten dizkiete kostu handiak herri aberatsenentatik aldenduen dauden ekonomiei, ezen Batasunaren egitasmoari berari atxikitzea politikarien artean eta gizartean dagoen borondatea ezaba bailezakete. Beraz, Europako integrazioa sakontzen jarduteak kalte larriak egin liezazkioke Europako barne loturari, bestela ere nahikoa handia den dualismoa aregotuz, baldin eta herrialde behartsuenei laguntzeko politikak sortzen ez badira. Elkartearen Herrialdeetarako Politikarik ezean, ez da egongo Europako Batasun Politikorik.

Laburbilduz, Europak erronka itzela du aurrean, ez berak hala nahi izan duelako, beharrezkoa duelako baino. Izan ere lehenbailehen erdietsi behar du Europan ekonomi eremu indartsu eta lehiakorra izatea, periferiko legez, beste bi herrialde blokeetan (Estatu Batuetan eta Japonian) gertatzen ari diren aldaketetara egokiro moldatzeko. Arrisku horrek Europako herrialdeen artean ezbaierik gabe sortaraziko duen desorekan eta egitasmoak horri eutsi ahal izango dion jakitean datza.

Ekonomi eta Moneta Batasunerako hautabideak (EMB)

EMBrako aurrerabideak oztopo handiak izan ditu oraintsu, Maastrichteko Itunbena (MI) berresteko izan diren zailtasunak kasurako. Europako Moneta Sistemaren truke-mekanismoak behe jo duenez eta finantzetan gora-behera etengabeak direnez gero, EMSren beraren iraupena arriskutan dago.

Gerta al liteke inguruabar horiek ezarrita dagoen egutegiari edo are EMBrako transizioaren prozesuari kalte egitea?

Gaur egun dauden hautabideen laburpenik hoberena Financial Times-ek eman zuen:

- 1) EMB osora zenbait estatukide heltzea berehala. Hautabide hau bidezkoetzeko, adierazi dute bultzada berria eman behar zaiola EMBren sorkuntzari, halakorik gabe orain arte irabazitako guztiak galdu egin bailiteke. Aukera hau egitearen aldekoen abiapuntua Europako Elkartea osatzen duten 15 ekonomiak Maastrichteko Itunbanean ezarri diren epeetan bat etortzea ezinezko delako ustea da; ondorioz, EMBera maila ezberdinetan heltzea hobe dela pentsatzen dute.

- 2) Truke tasen sistema malgura itzultzea. Hauxe da hautabiderik muturrekoena, EMB sortzeko prozesua bertan behera uztea ekarriko bailuke; beraz, EMB bera sortu behar ote den zalantza gehien jartzen duen aukera da.

Hau proposatzen dutenen arabera, ekonomi mozkinik handienak lortuak dira jada edo laster lortuko dira arantzel langak kenduz eta zirkulazio askea ezarriz, Europako Barne Merkatuak horixe eragin baitu. Aldaketa horiez baliatuz, Europako herrien arteko merkataritzako harremanak areagotu dira, ustiatzeko moduko eskalako ekonomiak hobeto erabili dira eta, horrenbestez, ekoizpen-kostuak txikiagoak dira, eta horregatik guztiagatik EEBBen edo Japoniaren lehiari aurre egiteko ahalmena handiagoa da. Onura hauen aldean, moneta bakarra sortzeak abantaila gehigarri oso gutxi dakar. Kostuak, ordea, oso handiak lirateke. Larriena politikoa da: EMBk estatukide bakoitzak bere burujabetasuna galtzea eragingo luke. Gainerako kostuen eragileak ekonomian izaten diren gora-beherei aurre egiteko truke tasen gaineko politikaren arloko (hau da, moneta politikan) autonomia galtzeak herri oso ezberdinetan sortarazten dituen larrialdiak dira.

- 3) EMSn gora-behera banda meharretara itzultzea, baina kapitala nazioartean ibiltzeko askatasunari mugak ipinita. Proposamen honen funtsa kapital mugimenduek oraintsu izan duten eraginari buruzko iritzi negatiboa da.

Hau proposatzen dutenek diotenez, truke tasa iraunkor baina moldagarriko sistema, EMS bezalakoa, eta kapitalen nazioarteko mugimenduak ez dira bateragarriak. Hauxe da EMSn behin eta berriz izaten diren krisien irakaspen nagusia, eta hortik dator kapital zirkulazioaren askatasuna murriztu beharra, halaxe konpon baitaiteke bateraezintasun hori. Doitzeko mekanismoaren elementu gisa hartu beharrean, kapital mugimenduak espekulazioko jardueratzat jotzen dira, eta horrexegatik uste dute batzuek jarduera horiek mugatu beharra dagoela.

- 4) Oraingo gora-behera banda zabalari eustea. Oraingo egoera, 1993ko abuztuan gora-behera bandak %15era (guztirakoaren %30a) zabaltzeko hartu zen erabakiaren ondoren sortu zena, bere horretan mantentzean datza, Alemania eta Holandan izan ezik, bi herri horietan lehengo gora-behera bandei eusten baitzaie.

Agerikoa da konbergentziarako prozesuaren malgutasuna gehitu dela eta hala erantzuna eman zaiela EMSk bere lehenbiziko krisi handian sortu zituen tentsio gaitzei; alabaina, prozesuaren gainerako elementuak mantendu egin dira: epeak, prozedurak eta EMBean sartzeko irizpideak.

EMBerako transizio prozesuan estrategia bat definitzeko elementuak

- 1) Oraintsu izan dugun esperientziak erakusten digunez, transizio prozesua doitzeko oinarritzko tresna den EMSren truke tasen mekanismoak arazo itzelak sortzen ditu. Izan ere, nork bere moneta politika burutzea eragozten du (eta horrekin batera baita truke tasen gaineko politika gauzatzea ere); aitzitik, ez da agertu uste bezain indartsu inflazio tasa murrizteko eta ekonomien konbergentziarako bitarteko gisa. Ia beti jarduera maila jaistea eta langabezia igotzea eragin du, eta horrela, inflazio tasetan konbergentzia lortu bada ere, lan merkatuan eta kontu publikoetan desoreka larriak azaldu dira.

Beraz, EMBerako transizioa malguagoa izan dadin lor dezakeen prozesua aukeratu behar litzateke, behar denean truke tasak doitzeko bidea ematen duena eta zenbait moneta bere balioaz gainetik luzaro mantentzea ekiditen duena (pezeta esaterako, 1989-1992 tartean bereziki). Beste estrategia bati ekiteak hazkundean eta enpleguan eduki dezakeen kostua handiegia izan daiteke Europako Elkarteko herrien batz besteko aberastasun mailatik oraindik nahikoa urrun dauden herrientzat.

- 2) Epe laburrean erabil litekeen estrategia honen bigarren elementua estatukideen ekonomi politiken arteko koordinazioa nahitaez sendotu beharra da. Koordinazio hori beti izan da denon nahia, baina orain ezinbesteko bihurtu da, truke tasa iraunkorren sistemarenak egin baitu. Esaterako, zenbait inguruabar gertatuz gero, korritu tasak gutxitzearen ondorena barne ekoizpena eta enplegua igoaraztea barik kanpoko inportazioak gehitzea izan daiteke.
- 3) Hirugarren elementua Maastrichteko Itunbanean ezarrita dagoen legegintza eta erakundeen garapen egitaraua mantentzea da. Baliteke transizio prozesuaren bigarren fasea Maastrichteko Itunbanean lehenengoetan uste izan zena baino luzeagoa izan beharra, benetako konbergentziarik ez dagoela antzeman delako. Arazoa ez da doikuntzarako mekanismoaren malgutasuna, baizik eta Maastrichten hitzartu ziren transizioaldiak oso laburrak direla.
- 4) Epe luzeko estrategia eginez, Europako Batasunaren akatsik korapilotsuena zergen arloan ahalbide gutxi izango duela da. Herrialde jakinetan ekoizpen eta enplegu jaitsiera ikaragarriak gerta daitezke, Europako Banku Zentralaren moneta politikak zuzentzen gaitz izango dituenak. Zerga sistema erdiratua behar da, behar diren transferentziak berez eta kopuru nahikoan sortzen dituenak. EEBBetan, estatu federala berau, aurrekontu federalak herrialde edo estatu batek bere errentan duen lehen galeraren %40a konpentsatzen du. Europako Elkartea osorik hartuta, aldiz, Elkartearen aurrekontuak ez du konpentsatzen errentaren lehen galeraren %1a baino gehiago.

Behin moneta bakarrari eta moneta agintaritzak bakarrari betiko lotuz gero, estatukideek behin eta betiko galduko dute euren burujabetasuna. Orduan, ezinbestekoa izango da jakitea herri batean izaten diren ekonomi beheraldia zein neurritan konpentsatuko diren Elkartearen berezko transferentzien bidez eta zein neurritan jasan beharko dituen herri horrek berorrek bere kontura.

2.-EKONOMIAREN ARDATZAREN ALDAKETA

Ekonomiaren arloak 2000. urtean eta aurrerantzean hartuko duen egitura, funtsean, hiru ekonomi lurralde garrantzitsuenetako langabeziari loturik egongo da, hau da, Iparramerika, Europa, eta Asia zein Ozeano Barearen ertzeko lurraldeetako langabeziari. Zirrargarria izan daiteke, ikuspegi guztiok banan-banan aztertutik, berorien elkarketatik sor

daitekeen egoera orokorrari buruz hausnarketa egitea. Ekonomia eta merkataritzaren arloetan nagusi diren hiru blokeen ekonomiek, garabidean, elkarrekin izango dituzten aldeek ekonomiaren ardatzean eragingo dituen aldaketak ere guztiz interesgarriak dira.

Iragarrita dagoen egoeraren arabera, Asiak eta Ozeano Barearen inguruko lurraldeek hazkunde azkar samarra izango dute (urteko %5etik 6ra bitartekoa), Europako hazkundearen aldean, behintzat, (urteko %3tik 4ra bitartekoa) eta Iparramerikakoaren aldean (urteko %2tik 2,5era bitartekoa). Hazkunde-tasen arteko alde horiek ondorengo bi hamarkadetan irauten badute, Asiako lurraldeek munduko NEGen duten partaidetza 1990ean laurden bat izatetik 2010ean hiruren bat izatera igaroko da.

Bestelako egoera bat ere irudika liteke asmakerian erori gabe. Iparramerikako herrialdeak ez dira gai izan NAFTARI buruzko akordiorik lortzeko, eta EEBBetan alferriko ahaleginak egiten dituzte euren defizit fiskala murriztu, hezkuntza sistema hobetu eta azpiegiturak eraberritzeko. Europa bere Europako Batasuna eratu ezinik dabil, integrazioari esker lortuko omen zen dinamika sortu eta teknologian beste eskualdeek ateratzen dioten aldea gainditzeko gai ez dela.

Asiak eta Ozeano Barearen inguruko lurraldeek osatzen duten multzoak hurrengo bi hamarkadetan, urteko batz besteko hazkunde-tasan, Iparramerika eta Europak baino ehuneko 5 edo 6 puntu gehiago izango balitu, orduan Ozeano Barearen ertzeko asiar herrialdeen NEGk, 2010. urtean, munduko NEGen %50a egingo luke. Teorian behintzat, Asia eta Ozeano Barearen inguruko lurraldeek ez lukete munduko NEGen %50 hori harrapatu edo gainditu beharrik ere izango nazioarteko egoeran eta ekonomi harremanetan leku nagusia izateko.

Leku hori eskuratzeko, munduko ekonomian horrelako garrantzia izatera iritsi ezezik, ekintza ekonomiko eta politikoa elkartasun maila handia lortu beharko lukete, eta hori benetan zaila da, kultura, gizarte eta politika oso ezberdinak dituztela kontuan hartuta.

Krisi-egoera orokorra

Ez da erraz asmatzen zer motatako krisiak eragin ote lezakeen krisi-egoera orokorra mundu osoan. Dena dela, garapen orokorrerako bidean benetako estuguneak diren funtsezko arazoen bilakaerak datorren milurtearen irudi beltza ematen digu. Europako integrazioaren geldialdia dela eta, 92ko Europari begira sortutako itxaropenaren Euforiatik, gaur egungo Eurofobiara ari gara igarotzen.

Hor ditugu nazioarteko elkarrekin ingurugiro arazo ikaragarrien aurrean erakutsi duen geldotasun eta ekimen eza, Rioko 92ko Gailurrean eta oraindik itxi gabeko Berlingo Gailurrean agerian gelditu dena; munduko merkataritza liberalizatzeko urrats astun eta neketsuak; merkataritzaren txokokeria eustezina eta hiru merkataritza-bloke handien sorrera; Estatu Batuek 80ko hamarkadako urteetan hasitako beheranzko joerari buelta emateko erakusten duten ezintasuna.

Estatu Batuek, gaur egun munduan zor handiena duen herrialdea izanik, euren aktiboak atzeritarrei saltzen jarraitzen dute, ia inoiz baino azkarrago. Atzeritarrek Estatu Batueganako ustea galduz gero, ezinbestez benetako doikuntza egin beharko da; hau da, iparramerikarrek irabazten dutena baino gehiago gastatzeari utzi egin beharko diote. Mr. Greenspan eta bere Erreserba Federalak egiten dutena egiten dutela ere, ezin izango

dituzte behartu atzeritarrak EEBBetako kontu korranteagatiko defizita finantziatzen jarraitzera. Benetako doikuntza horren eraginez, erraz gerta liteke Estatu Batuak kontu korranteagatiko superabita edukitzera iristea, eta orduan iparramerikarrek etxeko eskaria ekoizpenarekiko %4tik 5era bitartean murriztu beharra izango lukete. Horri loturik, dolarren jaitsierak ehuneko zenbait puntu gehiago jaitsiaraziko luke Estatu Batuetako benetako errenta. Hori dena batera hartzen badugu, egiantzekoa dirudi Estatu Batuek, luze gabe, 1973 edo 1979an petro- lioaren inguruan sortu zirenak baino krisi gogorrago bati aurre egin beharra izateak.

Ozeano Barearen inguruko asiar herrialdeek, batez ere Japoniak, gora eta gora jarraitzen badute, eta Europak zein Amerikak, berriz, nork bere ahuleria gainditu ezinik jarraitzen badute, munduko merkataritzaren inguruko tirabirak areagotu egingo zaizkigu laurogeita hamarrekoren hamarkadaren azken zatian, batez ere sektore estrategikoetan. Munduko ekonomi herrialde nagusiak, apurka-apurka, elkarren aurka diharduten babes-bloke bihur litezke. Ondorioz, merkatu-egiturek elkarlehiarako gaitasuna galdu eta, horren eraginez, teknologia berriak munduan zehar zabaltzea astiroago gertatuko litzateke. Are okerrago, hiru bloke handien ekonomien arteko aurkakotasunak zaildu egingo ditu nazioartean egin ohi diren elkarriketak, ingurugiroaren arazo larriak, energiaren kontsumoa, gas isurketen negutegi-efektua, klimaren aldaketa eta gure planeta basamortu bihurtzea bezalako gaien inguruan egiten direnak, alegia. Arazo horiek munduko ordena eta gizateriaren itxaropenak hondatzen jarraituko dute, beraz.

Ikuspegi horretatik begiratuta, mundua gorpil zoroan harrapaturik dabilela ematen du. Tirabirak alde guztietatik ugarituz doaz eta mundu-sistema gero eta hauskorragoa da. Gainera, ekonomi eta merkataritza-blokeen eraketa zein babes-neurriak hartzearen aldeko ideologien goraldia, biak oztopo dira mundu osora hedatu diren arazoei modu eraginkorrean aurka egiteko. Izan ere, arazo horiek konpontzeko behar dena elkarlana da, eta ez norberak besteen aldean aterako duen onuraren bila ibiltzea (presoaren dilema).

3.-EUSKAL EKONOMIAREN EGOERA

3.1.- Euskal ekonomiaren iragana eta oraina (1986-1995)

Euskal Herria Europako Merkatu Bakarraren barruan dugu, eta bihar-etzi sortu behar den Ekonomi eta Moneta Batasunera biltzekoa da. Horrek esan nahi du euskal ekonomiaren ingurunea erabat aldatuko dela.

Euskal Autonomi Elkartearen, 1986tik 1990era bitarteko urteetan aparteko hazkundera izan da. Hain zuzen ere, denboraldi horretan BEGren benetako hazkunde-tasa metakorra %4tik gorakoa izan zen: benetako hazkundera, oro har, %25ekoa.

Goraldi hori eragin zuen faktore nagusia inbertsioaren joera izan zen. Inbertsioak erritmo bizi-bizian hazi ziren 1986ko giro ekonomiko baikorrean: inflazio motela, benetako tasa txikiak, herri-finantza sendoak, eta Europako Elkarrearekin bat egiteko asmoaren iragarpenak enpresarien artean sortutako itxaropenak. Inbertsio multzo handi horren iturburua Euskal Autonomi Elkarre barrukoa da ia oso-osoan; izan ere, gure Elkarrea ez zen

onuratu Espainia Europako Elkartearekin batu zenez geroztik espainiar ekonomiak atzerititik jaso zituen inbertsio-multzo ikaragarriaz.

Hazkunde bolada horren alderdirik onena enpleguaren bilakaera izan zen: 100.000 lanpostu sortu ziren, kopuru garbitan, eta langabezi tasak behea jo zuen 1990ean: urte hartan batz besteko langabezi tasa %16,2koa izan zen.

1990-1993 bitarteko denboraldiaren ezaugarria ekonomiaren abaguneko ahulaldia izan zen. Abaguneko ahulaldi horretan zenbait inguruabarrek eragin zuten; bereziki, hurrengoak: nazioarteko igurikizunek txarrera jo zuten; lan-kostuek, berriz, gora egin zuten; enpresek lehiakortasuna galdu zuten, finantza-ekonomia espekulazioan sendo oinarrituta zegoelako eta I+G eta modernizaziorako berrinbertsioak oso urri zirelako; azkenik, Europako Moneta Sistemari sartu osteko moneta-politika berriak truke tasa babestea hartu zuen helburutzat, eta horretarako korritu tasak igoarazi zituen. Horrela sortutako giroa ez zen aproposena inbertsioetarako eta jarduerarako, eta hauek, ondorioz, 1993az geroztik etorri ziren nabarmenki.

Tasa altuek, lan-kostu handiek eta igurikizun ezak osatutako ingurune honetan, ekimen pribatuak inbertitzeari utzi zion, nahiz eta herri-inbertsioaren bultzada indartsuak oraindik goian eusten zion kapitalaren eraketa gordinaren hazkunde tasari. Baina honek ere beherakada handia egin zuen 1992. urtean. Kontsumo pribatuari eta, neurri handiagoan, herri kontsumoaren hazkundeari esker bakarrik, barne eskaria oraindik ere positiboa zen, behera egiten zuen arren. Barne eskariak beherakada itzela eginda ere, kanpo oreka hondatzeko joerak iraun zuen. Kanpo oreka hori, 1991tik aurrera, zeinuz aldatu zen eta kezkatzeko moduko defizit bihurtzeko bidean jarri.

Bitarte horretako gertakariak txarrena enplegua berriro ere hondatzen hasia izan zen. Izan ere, 18 hilabetetan 65.000 lanpostu galdu ziren, hau da, aurreko goraldian sortuak ziren lanpostuen erdia baino gehiago.

1993. urtearen amaieratik eta, bereziki, 1994. urtetik hona, euskal ekonomia suspertzen ari delako zantzoak ikusten ditugu. Euskal Herriko ekoizpen sektorearen erreaktibazioaren eragile nagusia pezetaren 1992ko eta 1993ko derrigorrezko devaluazioek ekarri duten kanpo eskariaren bultzada izan da.

Eskaintzari begiratuta, berriz, ondokoa azpimarratu behar da: euskal industriaren jarduerak, 1994an, hazkunde tasa oso handia izan zuen. Euskal industriak, suspertzeko bidean, alde handia atera zien Europar Batasuneko herrialde nagusietako industriei, eta apur bat txikiagoa Espainiako industriari (industrial ekoizpenaren indizea %9 hazi zen, edota, balio erantsiaren arabera, %4 inguru).

Hala ere, industri jardueraren bizkortze hori ez zen nahikoa izan lanpostu garbiak sortzeko. Industri arloko lanpostuak urte horretan, batz beste, %7,9 gutxitu ziren. Beraz, kopuru horiek, batetik, industri arloak oro har ekoizkortasuna irabazi zuela erakusten dute, eta agerian uzten dute, bestetik, langabeziaren gizarte-arazo latza. Estatu Batuetan enpleguak ekoizkortasunaren kaltetan sortzen dira; Japonian, aldiz, enplegua ekoizkortasunari esker sortzen da.

Bestalde, inbertsioaren hazkundeari esker barne eskaria suspertzen hasita dagoela ikusirik, ekonomia hazkunde-eredu egonkor eta sendoago baterantz abiatuko dela itxaron daiteke.

3.2.- Euskal ekonomiaren arazoak

Europako Elkartearekin bat egin ondorengo urteetan bizi izan zen hedaldiak hasieran ikusten uzten ez zituen ondorio txarrak sortu zituen bategite horrek berak, eta gaur egun ere sortzen ari da, industrian eta enpleguan.

Gure arazo larrienetarikoa bat industriak lehiakortasuna galtzearena izan da. Arazo horren erakusgarri dira bai kanpo kontuen desoreka eta bai, nagusiki, euskal ekoizkinen kuotak Estatuko barne merkatuan, atzerriko lehiakideen mesedetan, egin duen beherakada.

Gure industria, Europara sartu arte, lasai eta babespean bizi zen, barne merkatuaren monopolioa bermatuta zeukala. Bategiteak gogor astindu du: arantzelak kentzean geure barne merkatuaren ateak zabaldu dizkiegu atzerriko lehiakideei eta uholde antzera etorri zaizkigu, ez bakarrik Elkarteko herrialdeetatik, baita Hirugarren Munduko eta Ekialdeko herrialdeetatik ere. Hain zuzen ere, azken herrialde horietariko batzuk gogor ari dira sartzen nazioarteko merkatuan. Merkatu horretan guk benetan jarrera zaila dugu. Balio erantsi handieneko ekoizkintan Europako herrialdeak gu baino gehiago dira, eta laneku ugari eta ekoizpen prozesu errazak behar dituzten ekoizkintan, oster, industria garatu berria duten herrialdeekin lehia gogorrean aritu beharra dugu.

Euskal ekonomiak, eta bereziki industriak, beste bi arazo ere izan ditu, atzerriko lehiakideekiko borrokan kalte nabarmena egin diotenak. Lehenengoa hau da: pezetaren kotizazio handia, errealitatearekin bat ez datorrena, zaintzea helburu nagusi izan duen moneta politika. Bigarrenik, lan kostuak auzoko herrialdeetan baino askoz gehiago igo dira.

Gauzak horrela, euskal industriak prezioak izoztu eta errentagarritasunari uko egin behar izan dio, ezinbestez, merkatuetan duen lekuari eutsi ahal izateko. Industri prezioek, 1989-1993 bitartean, %4,8 baino ez zuten egin gora, alokairuak %32,1 igotzen ziren bitartean.

Geroago, pezetaren balioa behin eta berriro jaitsi da, eta negozioazio kolektiboetan istilu gutxi eta, alokairuen arloan, zentzuzko eskakizunak izan dira. Hain zuzen ere, alokairuak 1994an %4 inguru igo dira. Horrek guztiak suspertu egin ditu esportazioak eta industri prezioak, eta, hauekin batera, industriaren errentagarritasuna.

Euskal Herriko ekonomiaren jarduera-tasa, bestalde, Elkarteko batz bestekoa baino askoz txikiagoa da. Horrek garbi erakusten du kapital stock-aren defizita duela.

Gainera, gure ekonomian teknologia apaleko arloak lantzen dira gehienbat, eta epe ertainerako eskari handirik itxaroterik ez duten horietarikoak. Hori dela eta, ekonomi arloak bereizteko inbertsioak egin beharko lirateke, nazioarteko merkatuak eskatzen duenari egokitzeko.

Inbertsioak, bi urteko krisialdia eta txarrerako izan diren gorabeherak jasan ondoren, itxuraz hobera egingo du; hori erakusten digute behintzat inbertsioaren adierazkariak eta inbertsioa baldintzatzen duten faktoreen bilakaerak: besteak beste, 1994. urtean ekoizmena aurrekoetan baino askoz neurri handiagoan gauzatu da, eta enpresen mozkinak saneatu eta berrosatu egin dira.

Inflazioari eustea gure lehiakortasunaren funtsezko osagaia da, eta eginkizun hori ere oraindik bete gabe dugu. Moneta politika zorrotza ez da irtenbide egokia. Ekonomi

sistema malgutzeari ekin beharko diogu, enpresa eta arloen arteko elkarlehia eraginkorra bideratuko duten egitura-aldaketak sakonduz.

Euskal Autonomi Elkartearen bigarren arazo nagusia langabezia da. Gaur egun ia 225.000 langabe ditugu, biztanle aktiboetatik %25 inguru; gazteen artean, %50 baino gehiago lanik gabe ditugu; eta 90.000 lagun baino gehiago luzaroan lanik gabe. Kopuru kezkagarri horiek agerian uzten dute gizartearen bikoizte prozesu larria gertatzen ari dela, eta horri muga ipintzera beharturik gaude. Ondorio latzenak gazteek, emakumeek, aspaldian lanik gabe daudenek jasaten dituzte, baina horiek ezezik, baita lanpostu finkoa duten gizonezkoek osatutako multzo gogorrek ere.

Lan merkatuaren egoera larri honek zalantzan jartzen du lan merkatu zurrunaren egokitasuna, baita hezkuntza sistemaren baliogarritasun eta eraginkortasuna ere. Hezkuntza sistema horrek huts egin du, behintzat, gazteak lan merkaturako behar bezala prestatzeko eginkizunean.

Euskal Herrian langabezi tasa izugarria dugu. Langabezia hori egiturazkoa dela esan dezakegu eta badakigu muga jakin batzuen azpitik egon dadin zenbait faktore eraldatu beharko direna: enpresak kudeatzeko eta zuzentzeko ereduak, lanaren antolaketa, langileen prestakuntza eta gaikuntza, lan merkatura, lanaren banaketa -aldagarri honetan aitzindariak izan behar dugu, azkartasunez eta irudimena erabiliz, eta horretarako zeresanik duten agente guztiak bildu behar ditugu, hau da, sindikatuak, enpresariak, Administrazioa,...

Herrialde batek, inguruko herrialdeen aldean, ekonomian eta gizartean dituen arazoak argi eta zehatz ikusteko, biztanlegoaren bilakaerari begiratu ohi zaio. Euskal Herria, 1981 eta 1991ko biztanle errolden arteko epean ikusi den joera demografikoaren arabera, atzerabidean dagoen herrialdea da; Estatuan, berriz, demografia nahiko dinamikoa da. Atzerako joera horren arrazoiak asko dira: migrazio-mugimenduak, lan merkatura nekez heltzea eta jaiotza-tasaren beherakada. Gure biztan- legoaren beste berezitasun bat zahartasuna da. Dagoeneko gure herriak ezin ditu belaunaldiak osorik berriztatu, eta gainera, biztanlegoa irudikatzen duen piramidea aldatzen ari da. Gero eta ume gutxiago dago eskola eta institutuetan; adineko eta jubilatuak, berriz, gero eta gehiago dira.

Demografi atzerapen horrek, eta ezinbestez berarekin batera datorren zahartzeak, epe ertain eta luzera ondorio larriak ekarriko dituzte ekonomiaren hazkunderako eta gizarte gastua finantzatzeko.

Gainera, eskura ditugun ekonomi iragarpenen arabera, euskal ekonomiak hazkunde motelagoa izango du hurrengo urteetan (%3 ingurukoa) orain dela hamar urte baino. Horrek berez ez du itxaropen handirik ematen lan merkatuari begira.

3.3.- Autogobernua eta ekonomiaren hazkundera

Ekonomiari eta finantzei dagokienez, Herri Arloaren antolamendua eta ezaugarriak dira Euskal Autonomi Elkartea beste edozein ekonomi gunetatik gehien bereizten duten ezaugarriak.

Euskal Herriko Autonomi Estatutua eta Ekonomi Ituna dira gure autogobernuaren finantza ahalmenari eusten dioten zutabe nagusiak eta, beraz, Euskadiko ekonomi garapenaren oinarriak.

Transferentzien prozesua oraindik burutu gabe egon arren, izan ere oraindik ez dira transferitu autogobernuko zenbait eskumen, gizarte-ekonomiazkoak esaterako (Gizarte Segurantzak eta Prestakuntza eta Enplegu Politikak), eta prozesua denbora aurrera joan ahala irregularra eta batzuetan are gatazkatsua izan bada ere, Euskal Herriak izan ditu eta baditu eskumen eta bitartekoak bere arazoei aurre egiteko, gure inguruneari estu loturiko politikak antolatuz.

Bide horretan, finantzen eta aurrekontuen arloetan arauak emateko gaitasunak, batetik, eta ekonomi arloei zuzenduriko politikak bideratzeko gaitasunak, bestetik, eragin nabarmena izan dute gure ekonomiaren garapenean.

Industri politika, esate baterako, gure Herriko industriaren egoerari dagokion moduan antolatu da, gure ekoizpen egituraren birmoldatze eta eraberritze prozesuak aintzat hartuz, lehiakortasunaren erronkari behar besteko bermeekin aurre egin ahal izan diezaion. Azpiegitura politikak, berriz, Europarekiko diferentziak murrizten lagundu du, ekonomiaren garapena azkarrago hedatzea ahalbidetzen duen komunikazio sistemaren bitartez. Hitz batean, Euskadirentzat egindako politika, Euskadiren errealitateetik abiatzen dena eta bertoko baliabideekin ekonomia aurrerantz bultzatu duena.

4.-EUSKAL EKONOMIA ETA GIZARTEA

Euskal biztanlegoaren zahartzea

Euskal Herrian, biztanlegoa irudikatzen duen piramidearen lekuan, oina moztutako erronbo antzeko bat eratzen hasi da. Urtetik urtera hazten ari dira zahartzat jotzen diren adin-taldeak, belaunaldi berrietakoak gutxituz doazen bitartean.

Azken bost urteetan, 1986ko erroldatik 1991ko erroldara arteko urteetan, hain zuzen, 65 urtetik gorakoek biztanlegoan egiten duten portzentaia 2,4 puntu igo da. Izan ere, %10,24tik %12,44 izatera igaro da.

Baina gauzek txarrera egingo dute datozen urteotan. Eusko Jaurlaritzako Ekonomi Sailak, "Demografi eszenatokiak. 2.016ko horizontea" izeneko azterlanean, goian aipaturiko portzentaia etengabe haziko dela dio, eta 2.016. urterako biztanlego osoaren %19,2a hartuko duela.

Bien bitartean, lan egiteko adina duten biztanleen kopuruak -15 eta 64 urte artekoak- behera egingo zuen ia 6 puntutan; beraz, 1991n biztanleriaren %70,5a izatetik 2016an %64,7 izatera helduko da.

Iragarpen horiek betetzen badira, eta gizaldi pasiboek 7 puntutan gora egiten badute eta aktiboek behera 6 puntutan, gizaldi berriei gero eta zailagoa egingo zaie

aurrekoak mantentzea; gainera, banaketa-sistema finantzaketarako metodo gisa mantentzeko gizarte adostasuna beharko da, eta azken hau krisian sar daiteke.

Enpleguaren urritasuna

Dena dela, demografiak joera ona izango balu ere, gizarte babeserako sistema "laboristen" arazoa ez litzateke konponduko.

Gizartearen babeserako gure sistemaren funtsa lana bera da. Langile izateak sartzen gaitu sistemaren barruan eta kotizatzaera behartzen gaitu. Zahatzaroagatik, langabeziagatik, gaisotasunagatik eta abarregatik "lanik ez izateak" onuradun bihurtzen gaitu.

Hala ere, adituek adierazi dutenez, lana, behintzat gaur ulertzen dugun moduan, etorkizunean urria izango den ondasun bihurtuko da. Azken hamarkadetan, ekonomiaren hazkundeak enplegua gutxiago haztea ekarri du, batez ere Ongizate estatu garatuena duten ekonomietan.

Europako Elkartearen Batzordeak "Hazkundeak, lehiakortasuna eta enplegua" liburu zurian kopuru batzuk azaltzen ditu. 1970 eta 1992 artean, Estatu Batuetako ekonomiak izan zuen %70ko hazkundeak enplegua %49an igotzea eragin zuen. Europako Elkarateak, aldiz, %81eko hazkundearekin enplegua %9an besterik ez zuen igo. Espainiaren ekonomiaren kasua muturrekoa da: aldi horretan, %103ko ekonomi hazkundeak izan zuen, baina 1992an enplegu-tasa 1970ekoa baino %0,3 txikiagoa zen.

Euskal Herrian, fenomeno hori are larriagoa da. Euskal Herriko ekonomian 1975 eta 1992 artean, BEGak %35eko hazkundeak izan zuen, baina 130.000 enplegu galdu ziren eta, gainera, 32.000 biztanle gehiago jaio ziren.

Inolako zalantzarik gabe, Mendebaldeko Europaren ekonomiak erronka handi baten aurrean daude: nola sortarazi enplegua, beraien ekonomiek hazkunde motela badute.

Gizarte gastuan izango diren ondorioak

Euskadin, 1993ko datuetan oinarriturik, 475.000 biztanlek, gutxi gora-behera, Ongizate estatuaren erakundeetatik kobratzen zuten hilero. Hori horrela gerta dadin, 700.000 euskaldunek hilero kotizatzen zuten; EPAREN arabera, 665.000 biztanle zeuden lanean.

Beste era batera esanda, hilean-hilean 1,5 aktibok gizarte babeserako erakundeetako onuradun baten nomina ordaindu behar dute. Kopuru horietan argi nabaritzen da gizarte elkartasunaren alde egiten ari den ahalegina; eta ekonomi eta gizarte agenteek horren berri jakin behar dute, eremu horretan igurikizunak sortarazteko eta erabakiak hartzeko.

Gizarte babeserako dugun sistema konplexua da eta hainbat erakunde ditu gertakizun eta arazo guztiak kontutan hartzeko; hala ere, gune nagusia Gizarte Segurantzaren Sistema da. Gizarte Ongizaterako Fondoa (GOF) edo Birgizarteratzeko Gutxienezko Dirusarrera (BGD) aseguru publikoak hartzen ez dituen laguntza emateko tresnak dira, eta horien eginkizuna txikia eta osagarria da.

Makroekonomiaren terminoetan, bi erakunde nagusienek, hau da, Gizarte Segurantzak eta INEM erakundeak, 1993an 710.000 milioi pezeta bideratu zituzten gizarte babeserako, alegia, Euskal Herriko BEGaren %18a. Kopuru hori, gizarte babeserako gastu osoaren aldean, txikitat hartzen da, erakunde batzuen gastua, adibidez, Eusko Jaurlaritzarena (osasun laguntza, enpleguaren sustapena...), Foru Aldundiena (gizarte zerbitzuak), Udalena edo Lan Istripuetarako Ugazaben Mutuena, ez delako bertan sartzen.

Euskal Herriko egoeran, gainera, sistemaren oinarritzko aldagarriak azkar narriatzen dira; kotizazioak Espainiako sisteman baino gutxiago hazten dira eta prestazioak, ordez, gehiago. 1983an, Euskal Herriko gizarte kotizazioak Estatuaren %7,65a ziren; hamar urte geroago, 1993an, %6,81a ziren. Pentsioen gastuak, gainera, aldi horretan gora egin zuen, Estatu osoko gastu osoaren %6,29tik %6,49ra.

Zein ondorio izango ote ditu biztanleriaren zahartzeak Euskadiko gizarte gastuan?

Demagun adin talde bakoitzeko biztanle bakoitzeko prestazioak 1991koen parean irauten dutela (ez da kontuan hartuko sistemaren "adinekotze" efektua) eta gauza bera gertatzen dela aktibitate tasekin, langabezi tasarekin eta per capita ekoizkortasunarekin; demografiaren eragileak 1991. eta 2026. urteen artean pentsioen benetako gastua igoaraziko du %50ean eta gizarte gastuarena %30ean.

Kontutan izan behar da, 65 urtetik gorakoek pentsioen gastuaren %75a sortzen dutela eta beraiek direla osasun laguntza eta gizarte zerbitzuak gehien behar dituen taldea. Adituek uste dute 65 urtetik gorakoek osasun zerbitzuen kontsumoa gainerako biztanleena baino hiru aldiz handiagoa dela.

Beste era batera esanda, gainerako aldagarriak aldatzen ez badira ere, pentsioen kotizazio tasak %50ean gora egin beharko luke, demografiaren aldaketak orekatzeko.

Gizarte gastuaren igoera hau, ziuraski, gaur egun krisi sakonean erortzear dauden aurrekontu publikoen ahalmenez ganetik dago. Hori dela eta, Gizarte Estatuari buruz hausnarketa sakona eta, gainera, ahalik eta lasterren egin behar dela esan nahi du, Gizarte Estatu baina enpresa askearen ekonomi sistemaren elkartasunerako eremua. Ildo honetatik, agerikoa da ezinbestekoa dela Gizarte Segurantzaren oraingo erregimena eraldatzea. Eraldaketa horrek argi agertu beharko die herritarrei zer-nolako pentsioa izango duten etorkizunean, horretarako kontutan izanik Europar entseietan dituzten pentsio-fondoak bezalako kudeaketa-formulak.

Gizarte Estatuak bizirik iraun dezan, oso garrantzitsua da herri baten lehiakortasuna. Baina, seguruenik, egituren eraldaketak burutzea, eraginkortasun eza zuzentzea eta lehiakortasuna berreskuratzea ez da nahikoa izango; gure ongizate mailaren oinarriak moldatu egin beharko dira; horretarako, sistemak behartsuenengan elkartasun handiagoa izan beharko du, eta gainera, ekono- miaren arloan egoera hobean dauden hiritarrak ohartarazi egin behar dira, dituzten zerbitzuen erdia, gutxienez, finantza ditzaten.

Enpleguan izango den eragina: lanaren metamorfosisa

Bestalde, teknologia berriek enplegua aurrezten dute eta, horrez gain, lana antolatzeke era berriak behar dituzte; hau da, lanpostuek kalitate ezberdinak izan behar dituzte.

Ekoizpen prozesu berriak deserdiratuagoak dira, eta ekoizpen zikloak laburragoak eta azkarragoak dira. Hortaz, langileek lanbide eta trebetasunetan aldaketak egin beharko dituzte ahalik eta arinen eta, aldi berean, erantzukizun eta autonomia handiagoa izango dute. 80ko hamarkadan, ia langile amerikarren erdiak zuzendaritza lanak egiten zituen, mendearen hasieran horretan aritzen zen %12aren aldean. Hala, aldatzea ezinbestekoa dute enpresek, baldin eta iraungo badute; enpresek euren gizarte-ekonomiazko zereginak eskaera berriak asetzeko behar bezala moldatzeko eraberritzen diren heinean soilik beteko dituzte. Horretarako, antolamendurako sistema malguak beharko dituzte, erantzunak moldatuz eta aurreratuz ematen dituztenak.

Hori dela eta, etorkizuneko enpleguen ezaugarri nagusia malgutasuna izan beharko da. Lanek malgutasun handiagoa izan beharko dute iraupenari, ordutegiei, lantokiei, kontratu motei eta ordainketa sistemei dagokienez. Lanaren mundua gero eta anitzagoa izango da. Enpresetan lana kudeatzeko ereduak banakatuak izango dira; eredu horietan gizaki-norbanakoa izango da erreferentzia nagusia enpresaren lana antolatzeko erabakiak hartzerakoan. Horren ondorioz enpresen lana segmentatu egingo da, ezbairik gabe, langileen ezaugarrien, gizarte ezaugarrien, profesionarien edo kontratazio beharrianen arabera, kasuan kasukoa erabiliz.

Zoritxarrez, gure artean kontratazioaren arloan malgutasuna ezartzeak ondorio txar bat ekarri du, alegia, enplegua "kolokan" jartzea: aldi baterako kontratuak neurri gabe igo dira, eta hori epegabeko iraupena duten kontratuen kalterako izan da. 1992an, Espainiako emakume langileen %39ak eta gizonen %31k epe baterako kontrato bat zuen. Eta tasa hori Europa osoko altuenetako bat edo altuena izan zen.

Hala ere, lan malgutasun handiagoa egon dadin, enplegua egonkorragoa izan dadila lortu behar da, zeren eta epe luzean aldi baterako kontratuak kaltegarriak izaten baitira ekoizkortasunerako. Laneskua inbertsiorako baliabide bat da eta, beraz, ahalik eta gehien gaitu behar da, "ekoizpen malgu" berriaren beharkizunei ahalik eta ondoen erantzuteko.

Hitz batean, enpleguaren urritasuna eta lanaren antolaketa berria direla eta, gizarte babeserako erakundeek egoera berri honetara egokitu beharko dute eta, ekonomia hazteaz gain, gaur egungo Ongizatearen Estatuaren helburuak ahalbideratu beharko dituzte.

C) ABERTZALETASUNAK EGIN DUEN APOSTUA

1.-ENPLEGUA SORTZEKO ETA GIZARTEAN BARNE LOTURA LORTZEKO ESTRATEGIA

Garapen eredu batek ekonomi hazkundera, enpleguren gutxitzea eta alokairuen igoera eragiten baditu, gaur egungo gizarte egoera sortarazten du, hau da, errenta eta ongizate maila altuak, gutxi gora-behera, eta ia %25ekoak diren langabezi tasak. Egoera horren aurrean, ekonomi politikaren helbururik behinenak ondokoa izan behar du: enplegu gehiago sortaraziko duen ekonomi hazkunderako eredua bultzatzea. Alegia, sortzen den errenta igo eta hartzaile berrien artean banatuko duen eredua. Enplegua sortzea da, inolako zalantzarik gabe, gizartean barne lortura eraginkorrago bat lortzeko modurik onena.

Illo horretatik, hazkunderako estrategia berriak bost zutabetan oinarritu behar du, eta zutabe edo oinarri horiek gure herriak epe luzean hazkunde iraunkorra izan dadila ahalbideratu behar dute:

- a) **Esportazioa.** Merkatu Bakarrak eskaintzen dituen aukeren onura jasotzea eta, ikuspegi orokorrarekin, geroago eta zabalagoa eta nazioartekoagoa den mundu ekonomiak ematen dituenena. Gure ekoizkinak sartu behar ditugu merkatu horietan eta horretarako gure enpresen lehiakortasuna bultzatu behar da.

Lehiakortasuna etengabe hobetuz joan dadin, jarrera norberekoiak eta babesleak alde batera utzi behar dira eta ondoko helburuen aldeko apostua egin behar da etsi-etsian: enpresen arteko lankidetzak, merkatu berria zabaltzen den heinean ere enpresak berriz zabaltzea, eta euskal enpresak merkatu horretan tokia izan dezan beharrezkoak diren eraldaketak burutzea. Beraz, bai ekoizpenari, bai merkatuari eta kudeaketari dagokienez, berrikuntza etengabearen aldeko kultura finkatu behar da. Euskal Administrazioak enpresak nazioarteratzea eta beraien arteko lankidetzak bultzatuko duten egitarauak sustatu behar ditu, eta bai enpresetan zerbitzu aurreratuak sustatzeko eta erabiltzeko diren egitarauak ere; horrez gain, heziketa sistema ekonomiaren beharrian berrietara egokitu beharko da, eta horretarako, hasierako heziketa eta etengabeko heziketa indartu eta gazte ikasle, langile eta langabetuei zuzendu beharko zaie. Hortaz, hezkuntza sistema eraldatu nahi da, hau da, enplegurantz ezezik zientziarantz eta oinarritzko ikerketarantz ere bideratu beharko da; pentsatzen irakatsi beharko da ("learning how to learn"). Eta enpresek euren langileen prestakuntza buru belarri sar daitezen lortu beharko da, laneskua etengabe bilakatzen ari den baliabidea dela gogoan harturik.

- b) **Denon artean** egin behar dugu **ahalegina**. Alokairuen igoerak enpresen ekoizkortasun-tasen igoerei egokitu beharko zaizkie. Igoeren helburua erosteko ahalmena mantentzea izan behar da. Horregatik, praktikan alokairua/partaidetza kontzeptua bereganatu beharko da, bai eta hortik datozen ezinbesteko ondorioak ere. Aldi berean, enpresetako soberakinek ezin dute prezioen igoeren menpe egon. Mozkina, ekoizkortasuna igotzen denean eta ekoizpenaren kostuak jaisten direnean, lortuko da. Gainera, enpresetako soberakinen helburu nagusien artean ondokoa nabarmen daiteke: ekoizpen aparatua modernizatzeko, ikerkuntzarako eta teknologiararen berri- kuntzako metodoak ezartzeko berriz inbertitzea.

- c) **Inbertsioak** bi helburu ditu: gaur egungo egoeraren arabera, ekoizpen jarduera bereiztea, eta kapitalaren stock-a zabaltzea, batez ere inbertsio zabalkorren bidez, hau da, giza kapitala zabaltzea, lanaren ekoizkortasuna gehitzeko eta horrela ekonomiaren hazkundera eragiteko.
Bide horretatik, aurrezpenak garrantzi handia du, zeren bera baita kapitalaren stock-a bultzatuko duena. Beraz, famili aurrezpena, enpresen aurrezpena eta aurrezpen publikoak sustatu eta beraien alde egin behar da, zeren eta horrela kapitalaren stock-a igo eta epe luzearako hazkunde iraunkorra lortuko da.

- d) **Heziketa** gaur egungo teknologiaren berrikuntza eta aurrerapenei loturik dago eta, gainera, lotura zuzena du gizartearen gaitasunarekin, enpresa berriak ireki, bide berriak zabaltu, enpleguak sortarazi eta, hitz batean, aurrerapena bermatu ahal izateko.

Gaur egungo garapen-puntuan, dirua, teknologia eta ekoizkinak herrietako mugetatik erraztasun osoz igarotzen dira. Bizkitartean, iraupena bermatzen duen enplegua lana erarik eraginkorrean burutzen den tokietan sortzen da. Herriek eta nazioek aurrerapena lortu ahal dezaten, ez da oinarritu behar baliabide material eta finantzazkoetan soilik, hauek herrialdeen artean elkar- trukatu ahal direlako, baizik eta herri eta nazio horietako hiritarren kualifikazioan

- e) **Gizartearen barne lotura** epe ertain eta luzearako hazkunde iraunkor baten prozesuaren azken maila da. Egitasmo abertzale ireki eta tolerantzia gauzatu ahal izateko, egitasmo horrek elkartasunaren aldeko gizarte zuzenago bat, hiritar bakoitzaren arazoei hurbilago dagoena, eratu behar du.

Ez da ahaztu behar lehiakortasuna eta hazkundera ez direla helburuak, baizik eta enplegua zuzpertzeko, bizi kalitate hobetzea eta gizarte oreka handiagoa lortzeko, eta sortzen diren ondasunak zuzenago banatzeko bidea, konformismoa ekidinez. Hori guztia lortuko da, elkarte natural, politiko eta ekonomiko baten, elkartasunerako benetako eremu bat eratzen duenaren barruan, oso-osoan integraturik sentitzen garenean.

Laburbilduz, epe ertainerako den ekonomi politika batek ondoko helburu estrategiko orokorrak nabarmendu behar ditu:

{ Ekonomiaren garapena; horren helburua Europako herrialdeekin benetako bateratasuna lortzea eta enplegua sortaraztea dira.

{ Bizi kalitatea, ongizatea eta gizartearen barne lotura hobetzea.

Begi bistakoa da suminduta eta terrorismoaren indarkeriak jota dagoen gizartea ez dela toki egokia estrategia hori gauzatzeko, Herriaren normaltasuna eta oreka politikoa narriatuta dauden heinean. Beraz, bi elementu horiek ez diote herrialde bati inola ere laguntzen normaltasuna eta egonkortasuna lortzen. Terrorismoa desagertarazteko eta

Euskadin bakea lortzeko biderik onena Aberrian ekonomia oparoa izatea da. Inbertsioa erreskuratzen bada, hazkunde iraunkor bat lortuko da; gainera, inbertsioaren berreskuraketan hainbat aldagarrik, horien artean indarkeria, sortzen dituzten igurikizunak izango dira gidari.

2.-OHI EZ BEZALAKO GIZARTE ELKARRIZKETARAKO EREDUAREN EZARPENA

Gizarte elkarrizketa delakoa etorkizunean guztiok erabili behar izango dugun tresna da, baldin eta Euskal gizarteak aurrera egin nahi badu barne lotura eta gizarte osoaren artean elkartasuna lortzeko. Azken urteotako esperientziek hainbat porrot etsigarri eragin dituzte, eta gizarte-lan harremanen eremuan aldaketa ugari egon dira. Horiek guztiak direla eta, gizarte elkarrizketak etorkizunean ohi ez bezalakoa izan behar du.

Orain arte gizarte interlokutoreek praktikan jarri duten eredua agortzen ari dela dirudi. Beraz, ez da gehiegi ziurtatzea enpresetako zein sindikatueta erakundeak moldaketa-krisi sakonean daudela. Jadanik erabil ezin daitekeen harremanetarako eredu batean harrapaturik daude, hau da, lan-eremuan azken hamarkadetan teknologiaren, gizartearen, egungo balioen, eta enpresen aldaketen ondorioz sortu den eredu batean. Hori horrela dela onartzen ez badugu, garai berriek ezarriko dituzten aldaketen sendotasunaren aurrean, zalantza betetako egoera bat luzatzea baino ez dugu lortuko.

Gizarte buruen arteko harremanetan, sarritan, ondoko balioak nagusitu dira: alderdiaren nobreak hutsa, botere-mailari eustea eta alde baterako baino ez diren abantailak mantentzea. Bai enpresariak, bai sindikatuak, sarritan, gatazkarako estrategiak hobetsi dituzte, elkarrizketa eta gizarte- lan eta politika konprometuzaren ordean.

Kasu batzuetan, gainera, sindikatu batzuek eginak egin dituzte, enpresa publikoetako langileei gizarte-lan baldintza hobea lortzeko; bien bitartean, arlo pribatuko enpresa ertain eta txikietako milaka langilek beraie lanpostuak galtzen ari ziren, ia inolako kontrapartidarik gabe. Sindikalismo eredu bat ezaugarri horietako oinarrietan finkatzen bada eta Administrazioarekin eta enpresen arlo publikoarekin dituen gatazketan bere sendotasuna oinarritzen badu, eredu hori desagiketa prozesuei loturik dago.

Zerbitzuen sindikalismoaren krisiak ere kezka nabarmena sortarazi du gizartearen. Eskandalu izugarriak gertatu dira, eta zentral batzuek sindikatuarekin zerikusirik ez duten jardueretan parte hartu dute; horrek guztiak nahikoa mesfidantza sortarazi du eta finantza eta gizarte egoera arriskutsuan jarri ditu sindikatuak.

Ereua horretan, gizarte elkarrizketarako eredu berriak ezarri dira, eta horiek begirunea izan eta langileen negoziatzearen eskubidea bultzatu behar dute. Aurrerapenaren arloan elkar ulertzeko diren formula berri horiek era ezberdin batean garatu behar dira. Arloko talde hitzarmenak negoziatzeak eta sinatzeak ez du jadanik zentzurik, zeren eta, enpresen bereiztasunak eta ezaugarriak direla eta, haiek gauzatzea ez baita erraza.

Gizarte agente guztiek lan-harremanen eremuan parte hartzea bultzatzea behar litzatekeen gaia ezezik laster baten beharrezko eta ezinbestekoa izango den plataforma ere bada. Enpresen arteko elkarrizketetarako era berria sortu behar da; era berri honetan jarrerak malguak izan beharko dira, egitasmoetan parte hartu beharko da, erantzukizuna dena izango da eta arriskua hainbatu egingo da. Elkarrizketa-bide hau ezin eragoz dezake Estatuaren marko-akordioan ari diren agenteen jardunak, zeren eta arazoaren bereizgarritasunak eta aniztasunak ezinezko bihurtzen baitute neurri orokorrak ematea. Lan-harremanek orain arte baino autonomoagoak izan beharko dute, margina estuagoak, terapeiak konponbide eraginkoragoak eman ditzaten azaldu diren gaitzetarako, batez ere kontutan hartuta herrialde bakoitzaren ezaugarriak eta tipologia, arazoaren ikuspegitik ezezik,

baita gizarte agenteenetik ere. Beraz, Euskal Herriko gizarte agenteek bertoko lan-harremanetarako marko autonomoan parte hartzea ezinbestekoa dugu.

Arlo horretan, Euzkadik Lan Harremanetarako Eremu bihurtzeko behar diren baldintza guztiak betetzen ditu. Euzkadiko langileen gehiengoak sindikatu abertzale eta demokratikoa hautatzen du, euskal enpresarien konfederakundea dago, eta gainera badugu Jaurilaritza ere, ekonomia, industria eta gizartearen garatzeko behar diren politikak definitzeko gaitasuna eta eskumenak dituen; horregatik guztiagatik esan dezakegu esan duguna. Eremu hori, inolako zalantzarik gabe, ez da erabat osotuko, baldin eta Gernikako Estatutua gizarte-lanaren arloan zeharo garatzen ez bada, horixe baita autonomiaren garapenean gauzatzeko geratzen den arloetako bat.

Baina gizarte elkarriketa hau, enpresei eguneroko arazoak behar bezala konpontzeko bidea eman behar diena eta garapen estrategikorako planak ezartzen lagundu behar duena, enpresaz gaindiko eremuetan eta erakundeei dagokienez sustatu behar da, sindikatuetara eta enpresariengana ere hel dadin, hala maila guztietan eratortzen diren emaitzak armonikoak eta orekatsuak izan daitezen, hau da, denak egon daitezen helburu eurei begira.

Sindikatuaren eta enpresariaren arteko gizarte elkarriketaren beste helburu bat lan-harremanaren eremuan sortzen diren gatazkak konpontzea izango da. Hala bada, prozedurarik egokienak baketzea eta bitartekaritza izango dira, eta ez da horretatik bazter utziko gatazkan dauden alderdiek onarturiko tartekaritza ere, baina hau azken konponbide gisa. Hori guztia Mendebaldeko herri aberats eta gizarte oreka handikoen antzera burutuko da.

Ekonomia nazioartekotzeak dakartzan erronketariko bat enpresen ekoizkortasuna eta langileek jasotzen dituzten ordainsariak, alokairuak eta dibidenduak elkarri ongi lotzea da. Talde- negozioazioan horretaz ahaztuz gero, berandu baino lehen nagusituko diren negozioazio-ereduak alferrik atzeratuko lirake.

Pertsonen prestakuntza eta gaitasuna erabateko faktorea da enpresen lehiakortasunean, bai eta etorkizunerako bermea ere. Horregatik, langileek beti egon behar lukete euren burua prestatzeko prest. Enpresek, halaber, euren langileen prestakuntza sustatzeko eta errazteko baliabideak jarri behar lituzkete.

Enpresek behin eta berriro jotzen dute euren errentagarritasuna bermatzeko lan-kostuak izoztera. Enpresek jasaten dituzten alokairu-kostuak gehien garestitzen dituen zerga-ziria deritzona da: enpresari langileak jasanarazten dion guztirako kostuaren eta horrentzat eskura dagoen errentaren arteko diferentzia. Ziri horrek enpresek eta langileek Gizarte Segurantzari kotizatzen diotena biltzen du, bai eta lanaren errenten gaineko zuzeneko zergak eta zeharkakoak ere. Zerga-ziria, horrenbestez, enpresari langileak jasanarazten dion guztirako kostuaren eta beraren alokairu garbiaren arteko diferentzia da. Nahiz eta zerga-ziria (portzentaiatan neurturik) Estatu Espainiarrean Europako herri gehienetan baino handiagoa izan, hala ere enpresen gaineko zergen presioa eta langileengatikoko kostuak ere txikiagoak dira. Sindikalismoaren etorkizuna etorkizun hurbilerako oinarria da eta, inolako zalantzarik gabe, eremu egoki bat behar du, elkarriketa eta interesen adostasuna lortzeko, horiek baitira askatasunerako nahitaezko metodologia. Enpresa erakundeei jarrera irekiagoa izan beharko dute langileen ordezkariekin; horretarako, alokairuen gehikuntzen negozioazioan finkatzen diren apriorizko jarrerak uxatu eta enpresen egitasmoaren abiabidean aldaketari eta erantzukizunari irekirik egongo diren

jarrerak bultzatu beharko dira. Halaber, lanaren antolaketarako eskema berriak, eraginkorragoak eta parte hartzen handiagodunak lortu behar dira.

Enpresaren kide guztien arteko lankidetzak da herri baten benetako abiarazlerik onena eta, gainera, etorkizunerako bermea. Lankidetzak horren gradua eta indarra lankidetzak horretan parte hartzen dutenek nahi duten punturaino eraman behar da; gainera, legeei eta tradizio hutsari dagozkien arazoek ez dute eredu berri horren eraketan sartu behar, hau da, aurrerapenean eta ondasunen eta ongizatearen sorkuntzan oinarrituko den elkarriketa eta gizarte adostasunerako eredu berriaren eraketan.

Illo horretatik, langileek enpresen kudeaketan eta emaitzetan euren ordezkarien bitartez parte hartzeaz, praktikan hainbat eratarik egin daitezkeena, ezin da apriorizko jarrerarik hartu, ezta aurretik ezarritako aurriritzirik eman ere. Denen arteko kudeaketa hori beste kultura batzuetan (Alemanian) ezarritako balioa da, eta kalte baino onura gehiago ekarri ditu, bai kudeaketa hori egin duen herrialdeari, bai horretan parte hartu duten guztiei.

Alderik txarrean, denen arteko kudeaketa horien esperientziek enpresen krisiak lasaitasun eta gizarte akordiodun giro batean kudeatzeko balio izan dute. Enpresa barruko lankidetzak, beraz, azkenean ezartzea lortuko diren lan harremanetarako eredu berriaren funtsezko osagaia da.

Baina horrek ez gaitu poztu behar, zeren eta lan kostuak lehiakortasunarekin erkatu behar baitira nahitaez. Bi aldagarri horien arteko loturari langileko lan kostua deitzen zaio. Eta magnitude horrexek, hain zuzen ere, urruntzen gaitu gure inguruko herrialde garatuenetatik. Zeren eta, gure lan kostuak txikiagoak badira ere, gure ekoizpenaren lehiakortasuna askoz txikiagoa baita. Horren guztiaren ondorioa ondokoa da: gutxi gora-behera txikiak diren alokairuen bitartez lortzen dugun ekoizkertasuna gure lehiakortasun txikiarekin galtzen dugu.

Hori dela eta, merkatu berriak lortzen badira, ez da soilik magnitude batzuetan, alokairuetan adibidez, jarduteagatik, baizik eta arlo batzuetan jarduteagatik, hala nola, prestakuntza, ikerkuntza, etengabeko berrikuntza, teknologia berrien jasoketa eta egokitzapena, eta lana ondo egitearen aldeko konprometua.

Enplegua da oraintxe bertan dugun arazorik larriena. Langabeziaren tasa altuak kezkatzeko modukoak dira, zeren eta ekoizpenaren egiturak gero eta sendoago frogatzen ari baita ekonomiaren hazkundeak, nahiz eta hori baikorra izan, ez dituela langabeziaren indizeak jaitsiarazten biztanleria aktiboaren ehuneko hamabosta baino beherago. Ekonomia gehien hazi den uneetan, BEGaren %4 eta %aren tasekin, gure herriak ezin izan du langabezia gutxitu. Horrek ondorio argi batera garamatza: ekoizpen sistema ez dela gai lan egiteko prest dagoen biztanleria hartzeko; gainera, kontutan izan behar da horietako erdia baino gehiago gazteak direla.

Eremu horretan, gure gizartean, Martin Weitzman-ek bere Share Economy teoria (Banaketan oinarritzen den ekonomia) ospetsuan planteatu zuen ideia zabaldu behar da, alegia, dagoen lana denon artean banatu behar dela. Ekonomi sistema biztanle aktiboek lansaio osoko enplegua emateko gai ez denez gero, gizarteko onuradunei ondoko kultura barnerarazi behar zaie: lana denon artean banatu behar dela, elkartasun osoz. Mota horretako politikak nola gauzatu eztabaidatzea oso interesgarria izango litzateke, eta gainera, Euskadin eztabaida horren gainean hausnartu egin behar da. Baina ezer ezkutatu gabe esan behar da hurrengo gizaldiek ezin izango diotela eutsi beraien aurrekoen ongizatearen graduari, eta lansaioa txikitzea, eta ondorioz, alokairua ere bai, hautabide bat

baino ez dela, lan gabe dauden taldeei lana emateko, hauek behartsu bihurtu eta hiritar izateari utzi diotela senti ez dezaten.

Azkenik, planteamendu abertzale batetik, ezin da ahaztu sindikatuek, biztanleriaren zati handi baten ordezkariak diren aldetik, eta enpresen erakundeek Euskadiren aberri eraikintzaren prozesuan aktibo gehiago sortu behar dituztela eta ez kendu.

3.-EUSKAL HERRI-ARLOAREN ESTRATEGIA

"Denbora aurrera joan ahala gero eta ziurrago nago demokrazia hauxe dela: Estatuak herritarren bizitzan eskuhartze mugatua izatea." (A. Touraine)

Herri arloaren egitekoa herritarrari arazoak konpontzea da, ez arazoak sortzea; beti ere, bataz ez du bestea ordeztu behar aberastasuna eta ongizatea sortzeko erantzukizunetan.

Euskal herri-arloak garatuko duen estrategiak nahitaez hartu behar ditu bi norabide hauek: ikuspegi zabaletik, zentzuzko politikak, alegia, ekonomia egonkortzearen aldeko politikak bultzatu behar ditu, ekonomiaren oinarritzko desorekak desagertu egingo direla bermatzeko. Eta ekonomiaren barruko eremuei begira, ekonomi garapena bideratzen duten jokaerak eragin, pizgarrien bitartez; izan ere, kapital fisikoaren zein giza kapitalaren eraketa, hezkuntza, eraberritzea eta teknologiaren garapena sustatu beharra dago, gure enpresen lehiakortasuna hobetzeko. Azken batean, aldakuntza erraztu eta bideratzea da helburua.

Euskal herri-arloak, ikuspuntu orokor edo makroekonomikotik, hurrengo hamabost urteetan era honetara antolatu behar behar du bere jarduerak:

- a) **Aurrekontuak sendotu:** Bistan denez, oraintsu jasan duguna bezalako krisialdian defiziterako joerak areagotu egiten dira, sarrera publikoek behera egiten dute eta gastua igotzeko premia larriagoa sortu da. Hori dela eta, defizitaren bolumena eta herri zorraren eta beraren finantza zamaren pisua dagoeneko kezkarri bihurtu dira euskal herri finantzentzat. Beste administrazio batzuek jasaten dituzten aldean oraindik oso handiak ez diren arren, horrek ez du inondik ere esan nahi besoak gurutaturik gelditu behar dugunik, herri defiziterantz bultzatzen gaituzten eragile anitzi aurre eman gabe. Europako Batasunaren gidalerroek (zergatasunaren egitura eraldatzea, zeharkako zergei garrantzi handiagoa emateko; Europako zergak armonizatzea) eta bateratasun irizpideetarikoa batek, hain zuzen ere, gastuan zuhur izateko eta herri defizita maila jakin batera (BEGen %3ra) jaitsarazteko beharra aipatzen dute. Euskal herri-arloak helburutzat hartu duen bilakaeran, defizitak 1994an BEGen %1,3 izatetik 1997an BEGen %0,5 izateraino jaitsi beharko luke.

Baina ez dira kanpokoak bakarrik herri defizita gutxitzea komenigarri bihurtzen duten arrazoiak. Ez da ahaztu behar, ikuspuntu makroekonomikotik, finantzaketaren premia gero eta handiagoak korritu tasak igoarazten dituela, eta horrek kalte egiten diela inbertsioari eta ekoizpen jarduerari. Arautzat onartu behar da aurrekontuen zorroztasuna, ekonomi zikloan zehar herri kontuen oreka gorde beharra oinarri duena.

Horrela, bada, herri gastua moderatu, kontrolatu eta zentzutuz herri defizitari konponbidea ematea izango da etorkizunean herri-arloarentzat ekonomi prozesuari egonkortasuna, konfidantza eta sinesgarritasuna emateko giltzetariko bat.

- b) **Neurrizko eta zentzuzko herri kontsumoa:** Epe ertainera defizitaren murrizpena lortu nahi bada, ezin da abiapuntutzat hartu zergen gehikuntza, horrek ondorio kaltegarriak izango lituzke kontsumoan zein inbertsio pribatuetan. Defizitari eusteko, beraz, funtsean, zerga iruzurrari aurka egin behar zaio, eta herri gastua gutxitu egin

behar da, batez ere herri kontsumoari eta transferentzia arruntei dagokienez. Horri loturik, Herri Administrazioen jarduerari buruzko hausnarketa sakon eta zabala egin behar da.

Azken aldian gogoeta ugari egin da, zalantzarik gabe ongizatearen Estatuaren krisiak eraginda, herri-arloaren tamainak ekonomiaren hazkundeari begira ekarriko dituen ondorioak iragartzeko. Batzuek eta besteek hausnarketa horretatik emaitza orokor ezberdinak ateratzen badituzte ere, gehien-gehienek ondorio txarrak ikusten dituzte, herri kontsumoak eta transferentzia gastuak direla medio. Hain zuzen ere, gastu arruntaren hedapenak hazkundera moteltzera jotzen du.

Baina herri kontsumoa maila apalago batera eramateko, herri-arloa eraginkor bihurtzeko ahalegin hori ez da nahikoa izango; horrez gain ongizatearen Estatua deitzen dioguna gaur egun nolako egoera duen aztertu beharra dago. Ez dugu herri baliabide nahikorik herri gastuaren hazkunde azkarrari bere erritmo horretan eusteko; gastu hori gaur ditugun herri baliabideen arabera moldatu behar dugu, bada: gizatalde txiroenentzako dohainezko eskaintza zaindu egin behar da bai, baina errenta handiagoak izanik ahaleginean lagun dezaketenei ere, dena ez bada zerbait behintzat ordain dezatela eskatzeko aukera ere aintzat hartu behar da.

- c) **Inbertsio ahaleginari eutsi:** Euskadi-Europa 93 izeneko egitamua onetsi zenetik, Euskal Administrazioak inbertsio ahalegin garrantzitsua egin du, gure inguruko hainbat herrialderekiko aldeak laburtuz, herri kapitalaren zuzkidurari dagokionez. Hala eta guztiz ere, badira oraindik defizit garrantzitsuak, eta azpiegituretarako zein beste helburu batzuetarako herri kapitalaren eskaria ere bai, eta beharrian horiek lehenbailehen bete beharko dira. Horregatik, BEGen herri inbertsioak duen pisuari eustea dugu estrategiaren giltzetariko bat.

Inbertsio ahalegin hori zentzu zabalean ulertu behar da, eta ez aurrekontuaren sailkapen ekonomikoari begira bakarrik. Azpiegitura fisikoak, telekomunikazioak eta abar garrantzi handikoak diren arren, ez dugu inondik ere ahaztu behar herri baten garabidean heziketak eta ikerketak duten eragina. Euskadi herrialde garatua izango da gaitasun handiko giza kapitala duen heinean: irizpide argiak dituen, eta teknika kontuetan garai berriek eskatzen duten bezala trebatua. Hezkuntzarako inbertsioa dugu inbertsiorik seguruena. Teknologia eros liteke; jendearen gaitasuna ezin da erosi: ez epe laburrean, behintzat.

- d) **Herri-Arloa eraberritu:** Zergen bidezko sarrerak gero eta urriagoak izatea, zergen presioa arindu beharra, eskariaren gehikuntza etengabea, eta defizita murrizteko borondatea, inguruabar horiek guztiak bateraezinak dira, baldin eta baliabide berriak plazaratu eta aurrekontuak lasai egiteko aukera ematen ez bada; hori lortzeko, herri-arloaren ekoizkortasuna gehitzeko ahalegin izugarria egin behar da.

Horiek guztiak kontuan hartzeko arrazoiak izanik, badira beste batzuk ere, herrialde garatueto Herri Administrazioak eraberritzeko prozesuak eragiten dituztenak. Kanpotik izugarrizko presioak jasaten ditugu, gure ingurunean (teknologian, gizartean, politikan, ekonomian) gertatu diren aldakuntza sakonen ondorioz, Ongizatearen estatua birplanteatu izanaren ondorioz, eta Administrazioaren jardunean zein herri

zerbitzuetan hobekuntza eskatzen duten herritarren nahiaren ondorioz. Kanpotik datozen presioei, ostera, barruko presioak gaineratu behar dizkiegu.

Giro horretan sortzen dira bai arduradun politikoen kezka eta erantzukizunak, bai herri funtzionarienak: lehenengoei, euren politika behar bezala gauzatu nahian, baldar eta zurrin ikusten dute Administrazioa, eta bigarrenak ez dute euren lanarekiko atxikimendurik. Herri-arloko zuzendariei ere, gaur egungo sistemak euren eginkizuna betetzeko hainbat oztopo jartzen die.

Gure Herri-Arloak behar duen modernizazioa lortzeko, besteak beste, giza baliabideen kudeaketa hobetu beharko da, erantzukizunak deszentralizatu, politika-bideak ebaluatu, eta Administra- zioaren maila guztietako jarduketak elkarlotu eta koordinatu. Modernizazio horrek berekin ekarriko du, halaber, sektore pribatuan eraentzaileak diren antzeko irizpideak dituen kudeaketa; beharrezkoa izanez gero, Funtzio Publikoan indarrean dagoen legeria aldaraziko da.

Gogora ekarri behar dugu berriro ere, euskal herri-arloaren kudeaketaren kalitatea hobetzearen aldeko neurri horiek nahikoak ez izan arren, beharrezkoak direla: gainera, herri-sektoreak bereganatu beharreko jarduerak zeintzuk diren eta jarduera horiek nola finantzatu behar diren zehaztu beharra dago.

- e) **Garapen iraunkorraren ereduaren aldeko apostua egin:** Gaur egun, gizartearen ekonomia oinarri "iraunkorrargoetarantz" bultzatzea mundu osoko jendeak onartzen duen helburua da. Mundu gizarteak mende honetako bigarren erdian izan dituen garapen-ereduak ez dira batere eraginkorrak izan; izan ere ez gizarte aberatsek - nagusi diren ereduok ezarri dituztenak-, ez gizarte behartsuek -imitatzaileak eta haien menpekoak- ezin euts diezaieketen bizi estiloak sortarazi baitituzte. Agerikoa da herri industrializatuen ohiko garapen ereduaren bidean aurrera eginez gero ingurugiroaren egunean baino egunean narriatuago egoteak biosferaren bizitzaren oinarri diren sistema ekologikoen hondamendia eta horien menpeko sistema ekonomikoen erauzpena ekarriko duela. Ondorioz, bai garapen txikiko herriek, bai oso garaturik daudenek beste garapen eredu bat aurkitu beharko dugu, etorkizun garbi, zuzen eta iraunkorra eta eusteko moduko baten (terminoa Ingurugiro eta Garapenerako Mundu Biltzarrak sortu du) estiloaren definizioak apurka-apurka ingurugiroak eutsi omen ziezaiokeen garapenaren kontzeptuari beste dimentsio batzuk erantsi dizkio, ekonomiaren arlokoak, etikoak eta politikoak. Beraz, garapen iraunkorreko estiloa sortzeko planetaren osasunaren kezka ekologikoa ezezik taldearen iraupenerako baterako ekintzak egitea eta, epe luzean pentsaturik, datozen belaunaldietako eskubideak aintzat hartzea eskatzen du, baita sistema ekonomikoa orain baino zentzuzkoagoa izatea ere, hau da, helburuak gizarte justizia eta banaketa izatea. Ondorengoak lirateke mota horretako garapenerako oinarriak:

v Belaunaldibarruko hainbanakotasuna (gizartearentzat zuzena dena).

v Belaunaldiarteko elkartasuna (datozen belaunaldiek ere baliabideak izan ditzatela bermatzea).

v Garapena suntsitu gabe eta sortuz burutzea, gizartearentzat eta ingurugiroarentzat egokiak diren teknologiak erabiliz.

v Ekonomikoki bideragarria izatea: ekonomiaren hazkundeak badu muga fisikoa, epeei inolako mugarik jartzen ez badiegu.

v Mundu osoan ezartzeko modukoa izatea: Munduaren Antolamendu Berria nazioarteko lankidetzarako oinarri berriekin formulatu behar da berriro.

v Demografiaren oreka sustatzea, euskal biztanlegoak datorren mendearen lehenengo laurdenean izango duen zahartze-prozesua ekiditeko edo, behintzat, moteltzeko, eta plangintza-politikoak erraztea, migrazio-mugimenduak orekatzeko, herrien arteko elkartasuna kontutan harturik.

Badira beste politika makroekonomiko batzuk, hala nola truke politika edo moneta politika, gero eta gehiago Elkartearen erantzukizun eremura mugatzen ari direnak. Horiei dagokienez, ez dugu beste biderik Elkarteko Erakundeei zorrotz jokatzeko eskatzea baino. Era berean, zorrotasuna eskatu behar zaio Administrazio zentralari, bere esku dituen arazoetan. Bide honetatik jo behar da: inflazioari eustea, lehiakortasuna ematea behar duten arloei, monopolioak kentzea, korritu tasak jaitsaraztea, eta moneta-ekaitzak baztertzea, ekonomiaren fidagarritasuna kolokan jartzen dute eta.

Azken batean, herri-arloak benetan lagundu nahi badu epe ertain eta luzera bidera litekeen ekonomi hazkunde hori lortzen. Apostu garbi eta sendoa egin behar da herriar guztiek herriaren etorkizunari begira duten erantzukizuna indarberritzeko, herri-arloa berregituratuz eta modernizatuz, nolako herri-arloa nahi dugun, zertarako nahi dugun eta nola finantzatzeko dugun eztabaidatuz.

D) ABERTZALETASUN IREKI ETA TOLERANTEA, GIZARTE JUSTIZIAREN BERMEA

Ekonomiaren eredua nazioararteratuta dagoen une honetan, ekonomiaren garapenerako eta hazkunderako gaur egungo sistemak galdera bat egin du, baina galdera horri erantzutea zaila da. Hau da, herrialde blokeen ekonomia nazionalak mundu osoan nagusitu dira eta bi ezaugarri dituzte: batzuek **gizarte ezberdintasun** handia sortarazten ari dira, baina, aldi berean, **enplegua** sortarazten dute eta langabezia gutxitzen dute, ia teknikoak diren indizeetaraino. Beste batzuek, ordea, berdintasun eta **gizarte babeserako** sistema bat, babesik gabeko taldeei laguntzen diena, mantentzen dute, baina ezin dute behar besteko enplegua sortarazi. Ekonomi horiek, beraz, **langabezi** tasa altuak dituzte.

Lehen eredua Estatu Batuen eraginaren menpe dauden ekonomiei dagokie; bigarren eredua, aldiz, Europako ia herrialde garatu guztietan aurki daiteke. Bi ereduak dituzte alde onak eta alde txarrak, eta herrialde bloke bakoitzean azken lau hamarkadetan eratu den kulturaren arabera ezarriko da eredu bat ala bestea. Horregatik, neurri batzuk edo beste batzuk erabiltzea ez da mimetismo kontu hutsa, zeren eta ekonomiaren garapenerako sistemaren osagarriak diren balio multzo bat baitago.

Euskadik etorkizunean lortu behar duen ekonomi eredua, hau da, Euskal Abertzaletasunak defendatu eta eraiki behar duena, ez du Estatu Batuek dutena izan behar. Estatu Batuetan ekonomia hazten ari da, ez dago ia langabeziarik eta, inolako zalantzarik gabe, balio batzuk daude; baina, aldi berean, bertako estatuetan gizon, emakume eta umeen talde kaltetuak daude, behar gorriena pairatu eta bizimodu hutsa izango dutenak. Horren loriotsua al da industri kapitalismoaren buruzagia izan den herria, bi hamarkadetan bere ekoizpen-ahalbidea agortu badu? zer pentsatu behar dugu aldaketa horretaz, jakinik batez ere zergek alokairu-errentetan eragindako murrizpenak ekarri duela?

Lehia izugarria, aberastasun sortze barik diru erraza eskuratzea eta behartsuak baztertzen dituen norberekeria oinarri dituen liberalismoaren izenean hartu diren politikek langabezia-tasa oso altuak eta zenbait taldetan behar handiak sortu dituzte, eta hori dela eta nortasuna galtzen ari dira. Ondorioak iragartezinak dira.

Euskal Abertzaletasunak Welfare State-aren aldeko apostua egin behar du. Ongizatearen estatua defendatu behar du. Gure kulturaren barruan dago eta elkartasuna, oreka eta gizartearen barne lotura behar du. Probidentzia Estatua krisi sakonean murgildurik dago. Horren finantzaketak eredu hori agortzen ari dela erakutsi du. Teknologia berriek, lanaren banaketak, ekonomiaren hazkunde motelak, biztanleria zahartzeak eta emakumea lan munduan sartzeak ondoko eragin du: lan gabe gero eta biztanle gehiago egotea eta sistemak ordaindu ezin dituen gizarte gastuak sortaraztea. Ongizatearen estatuan zerga krisia dagoela begi bistan dago, eta beraz, neurririk hartzen ez badu, estatu hori laster desagertuko da. Euskadik, arlo horretan, ez du alde txar horietatik ihes egitea lortu, eta elkartasunaren eta gizarte babesaren finantzaketak administrazioetako hurrengo aurrekontuei oratuko diela mehatxatu du.

Hori dela eta, Euskal Abertzaletasunaren erronka **Ongizate estatuari buruz hausnarketa egitea da**. Ongizate estatua zalantzan jarri behar da, eta gaur horrek duen egoerari eta etorkizunari buruz hausnarketa sakona egin behar da, desager ez dadin lortzeko. Ongizate estatua defendatu ahal izateko, hori berriz egituratu behar da. Hori horrela egin behar dela onartzen ez duenak, alegia, gaur egungo egoeran Ongizate estatuak iraun dadila defendatzen duenak, eta indar politiko batzuek hala egiten dute, estatu mota horren heriotza epaia idazten hasi da. Azpimarratu beharra daukagu demokraziaren aurrarepena eta erazko eta norbanakoen eskubideak ezezik benetako zerbitzuak bermatzen dituen Estatua eraikitzea elkarri loturik daudela historikoki. Ostera, zerbitzuak erabat gutxitzeak demokraziarentzat atzerapausu ikaragarria ekarriko luke.

Ongizate estatua berregituratzeari buruz hitz egiten denean, behintzat abertzaletasunaren ikuspuntu batetik, ondokoa proposatzen zaigu: Administrazioak egin behar dituen gizarte zerbitzuak zehaztea, nola finantzatuko diren eta zein gizarte talderi eragingo dien azaltzea. Hasteko, esan behar da hausnarketa hori Administrazioa bera modernizatzeko eta arrazionalitzeko den joera batekin batera eta aldi berean egin behar dela eta zerga maula kontrolatu eta azkenean ezabatzeko ekimenak ezarri behar direla. Zeren eta ezin baita zerbitzu eraginkorrik egin, horiek egiten dituen erakundeak bere jardunbidean ments handiak baditu.

Ildo honetatik, Euskal Abertzaletasunak Administrazioa arrazionalitzeko eta hobetzeko konpromezua du, baina jarduketa mota horiek ez dira nahikoak izango. Hobeto administrazteaz gain, adierazi behar dugu Herri Arloa ez dela gai izango gaur egun hiritarrei eskaintzen dizkion gizarte zerbitzuak egiten jarraitzeko. Hezkuntza eta Osasun sailak dira,

bereziki, kezka larriena sortarazten dutenak; horien aurrekontuak ikaragarri hazten ari baitira, euskaldunen adin piramidearen eta demografiaren gaur egungo arazoan ondorioz. Hortaz, gizarte zerbitzu jakin batzuk gaur egun biztanle guztiei heltzen zaizkien ala ez berraztertu behar da. Berrazterketa horren abiapuntua sistemak onura gutxien ematen dien pertsonen zerbitzu horiek bermatzea da; ekonomi ongizate hobea eta errenta maila altuagoak dituzten hiritarrek, ordea, zerbitzu horien zati bat ordaindu beharko dute.

Ikuspuntu horretatik, ondokoa proposatzen ari gara: biztanleriaren zati batek gainerako biztanleenganako **elkartasuna erakusteko ahalegina** egin dezala. Hiritar pribilegiatuenean beraien aberkide behartsuenen aldeko elkartasunerako ahalegina egin behar dute. Ondasunak birbanatu nahi badira eta hori ezberdintasuna gutxituko duen mekanismoen bidez lortu nahi bada, garapen orekatsua eta elkartasunaren zentzua bultzatuko duen eragile bat behar da. Eta, gure ustez, Abertzaletasuna da, denok gizarte berekoak garela, etorkizun bera duen talde bat denon artean eratu behar dugula sentitu eta elkartasun mota horren alde egiten duena.

"Denok gaude honetan batera" eta **"gure etorkizuna guztioi dagokigun arazoa da"** esaku- netan oinarritzen da abertzaletasunaren xedea, eta horrexerri esker, lortuko dugu elkartasuna egingarria izan dadila. Ondorioz, gizarte justizia eragingarria bermatuko duen Abertzaletasuna lortu nahi badugu, gizartearen denek hartu behar dute parte aberriaren barne loturaren aldeko sakrifizioan. Aberria guztien jaraunspena dela eta aberri bat izan behar dutela sentitzen dutenez gero, suediarrek, alemaniarrek, austriarrek edo japoniarrek beraien aberriak modernitatean, aurrerapenean, lehiakortasunean eta etorkizunean garatu dituzte.

Bestela, post-modernitateko norberekia eta norberekoikia, izan beharraren arrazional- tasunaren ordean, nagusitzen bada Ongizate estatuak porrot egingo du eta, horrez gain, mugimendu abertzaleak berak ere horren eragina nabaritu du. Zerk bultzatuko du hiritar bat bere ongizatearen zati bat beste hiritar batzuen alde ematera? Gizabanakoen balioak goraiatzeko dituen gizarte honetan, gorago aipatu dugun galdera horri ondoko erantzuna ematen zaio: ez dagoela ezer elkartasunaren egituraketa bultzatuko duenik. Hobeto esanda, guztiz kontrakoa. Post-modernitateko gizartearen elkartasunak esanahi osoa galtzen ari da, aberriaren aitzindaritasuna ere desegiten ari den heinean. Sakrifizioarako gaitasuna desagertzen ari da eta aberria bera ere gainbera dator.

Abertzaletasun baikorrak, hau da, aberriaren hazkundera eta aurrerapena lortzea xedetzat duenak, xede hori lortu ahal izateko, balio zibiko batzuk izan behar ditu. Bere buruzagiek, eta batez ere, bere gobernariak portaera etikoen kodeak onartu eta bete beharko lituztete inork baino lehen. Gizartearen gainerakoak kode horiek jokabide normalizatuaren arau gisa onartu behar ditu. Arlo horretan, **jasamena, elkartasuna eta eredugarritasuna** etorkizunean egikaritu beharko diren funtsezko balioak dira.

Baina ez dira pribilegiatuak soilik, ongizatearen zati bat lagatu behar dutenak. Maila ertainekoek ere, errenta maila txikiak dutenek barne, elkartasuna erakutsi beharko dute, egun dagoen enplegua banatzeko orduan. Europaren mendebaldeko gizartearen eta, batez ere, euskal Herrikoaren arazo larriena ondokoa da: nola konpondu gaur egun dauden langabezi tasa altuak. Beraz, lan zentroetan sartzeko eta bertan irauteko sistemak jarraitzen badu eta hemendik aurrerako ekonomi hazkundera ezin baditu sortarazi gizarte egiturak eskatzen dituen enpleguak, zer-nolako gizartearen eratuko den izango da zalantzarik kezkarria. Hau da, nola sortarazi behar den besteko enplegu garbia, ekonomia %3an edo %4an baino ez bada hazten. Zeren eta, kasurik onenean, Euskadik 2000. urtean izango duen langabezi tasa biztanleria aktiboaren ehuneko 20koa izango da. 200.000

euskaldunek, gutxi gora-behera, ez lukete lan egiteko aukerarik, nahi izanda ere. Arazoa ez da Ekonomiaren hazkundera, baizik eta ekonomi ereduaren gaitasuna.

Adimena aldaketetarako prest eduki beharra

Gizarteak ezin ditu onartu dituen zalantza eta galdera guztiak etsian eta ezer egin gabe. Nahitaez, adimena arazo horietarako prest eduki behar du. Eta arazo horien artean, hau da, nagusiena, gaur egungo lan merkatuaren eraldaketa da, batez ere, lan horren banaketari dagokionez. **Lan gutxiago egitea, horretara besteek lan egin ahal dezaten**, horixe da gizarteak aurre egin behar dion eztabaidaren izenburua; horrekin batera, enplegu berria sortzeko ditugun aukera guztiak ahalik ondoen aprobetxatu behar ditugu edo bestela norbanakoen eta enpresen gaitasunak. Alokairuaren zati bati uko egin behar zaio, gainerakoek bizi baldintza gutxienezko batzuk izan ditzaten eta gizarteak ezberdintasunik edo gatazkarik izan ez dezan. Horixe da hausnarketaren bigarren atala. Ildo horretan, apostua ondokoa da: gertakariak beste kultura batzuetan ezarri duten gizarte bikoitza eratzea. Helburua hau da: aberrian gizarte justizia eragingarria, aurrerapenaren bermea eta hiritar guztientzako ongizatea lortzea.

Aldaketa horiek guztiak ezin izango dira ezarri. Jasamena eta malgutasuna etorkizunerako tresnak dira. Egunean-egunean kultura berri batek aurrera egiten du, eta gertakariak beraiek eskatuko dute eraldaketak egitea, nahiz eta gaur egun horiek guretzat harrigarriak izan. Enpresa bakoitzean, eta garai berri hauen berezko joeren indarra ikusita, enpresariak eta langileak negoziatzia eta ituna lortzeko formula berriak hartu beharko dituzten akordio bidez. Zeren eta aurrerapenak ezarriko duen ezaugarrietako bat bera ere akordioan oinarritu beharra izango baita. Mozkinak eta ekoizkertasuna alokairuei estu-estu loturik daude. Enpresen soberakina berrikuntza prozesuei loturik egongo da. Enpresa bakoitzak akordiorako bere kultura berezia garatuko du. Alokairuak jasotzen dituztenek nahitaez sartu beharko dute prestakuntzaren eremuan. Ikasteari, **gaitasunari, lana ondo egiteari** eta **lanbide lehiakortasunari** etengabeko arreta berezia emango zaie.

Lan munduaren malgutasuna lan harremanen ezaugarri nagusiena izango da datozen urteetan. Lan merkatuak gaur egun dituen zurruntasunak ez datoz bat garai berrietan sendotuz joan den kulturarekin. Etorkizunari begira, lan merkatuan ezin da sistema bikoitz baten sendoketa mantendu. Hau da, enpresa bereko eta gaitasun bera duten langileak alokairu ezberdinak hartzea, eta gainera, horri kritikarik ez egitea. Lan merkatuan **malgutasuna** erabiltzeak ez du esan nahi lan merkatu horretako arau guztiak desagertarazi behar direnik. Erronka ez da gizarte arloko arautegi guztiak desagitea. Erronka ondokoa da: lan harremanak araupetzen dituzten arauak bizi dugun gizarte eremura egokitzea, horrela langileen baldintza guztiak hobetu egingo direla bermatzeko.

Honetaz ari garela, guk proposatzen dugu lanaren arloko arautegia oraingo girora moldatzeko aurreneurri nahikoak har daitezela, ondoreak legegileak lortu nahi dituenak izan daitezen, legea behar baino zorrotzasun handiagoarekin ezarri barik, langileen hobekuntza orokorraren eta enplegu sorkuntzaren kaltetan.

Prozesu hori guztia era orekatsu eta lotu batean burutu nahi bada, berezko eremu batean garatu behar da. Euskadik, bere berezitasunengatik, lan harremanetarako autonomi eremu bat eratze behar diren osagai guztiak ditu, gero eremu horretan mundu berriak eskatzen dituen eraldaketak ezarri ahal izateko.

Hiritarrak etengabe **prestatzea** da gaur egun aberri baten aurrerapena lortzeko gakoetako bat. Abertzaletasunak egin dezakeen inbertsiorik seguruen da. Enpresen egitasmo berriak, gaur egungo ekonomiaren ereduaren nazioarteratuta dagoenez gero, beste edozein tokitan ezar daitezke. Teknologia, ekoizkinak eta finantza baliabideak herri batzuetatik beste batzuetara azkar baino azkarrago igarotzen dira. Hala ere, hiritarren gaitasuna herri baten aktiboetako bat da. Etorkizuna duten inbertsioak erakartzea alferrikakoa da, baldin eta giza kapitalak behar bezalako prestakuntza jasotzen ez badu. Prestakuntza berrikuntza prozesuei eta teknologiaren aurrerapenari estu-estu loturik dago eta prestakuntza horrek herriei enpresa berriak irekitzea, ikerkuntzan aurrera egitea, bide berriak urratzea, ondasunak eta enplegua sortaraztea eta, hitz batean, etorkizuna bermatzea ahalbideratzen die.

Euskal Abertzaletasuna ohartu egin behar da bera dela berrikuntzak eta prestakuntzak ezarri dituen jarrera, balio eta jokabideen eragile aktiboa. Euskal Herriak datozen aldaketa sakonak gaindigu behar ditu, bere gizarte-ekonomi kultura eraldatu nahi badu eta gauza berri guztiak arrazionaldu eta bere balioen sisteman uztartu nahi baditu. Eta arrazionaldu ondoren, horiek herri honetako ondorengoei lagatzeko, etorkizuna dutelako bermearekin.

Alde batetik, enplegua sortarazi baina gizarte desoreka handiak dakartzaten ereduak eta, beste aldetik, oreka mantendu baina enplegurik sortarazten ez duten ereduak artean gaur egun tentsioa handia dago; hori konpondu ahal izateko, Euskadik gorago aipatu ditugun eraldaketak behar izango ditu nahitaez. Zeren eta jadanik iragarri baita Ongizate estatua eta horren gaur egungo garapena dela enpleguaren arazoa eragin duena. Paul Krugman-ek, Standford Unibertsitateko Ekonomi katedradunak eta Welfare State-aren aldekoak, ondokoa adierazi du: Europako Ongizate estatua *"agian eskuza- balegia dela. Enpleguaren sorkuntzan Estatu Batuen eta Europaren artean dagoen ezberdintasuna ondokoa da: Europako Welfare State-k ez duela jendea gogoberotzen ondo ordainduta ez dauden enpleguak onar ditzan eta, beraz, ez dituela enpresariak gogoberotzen enplegua eskain ditzaten, bai iraizpen kostuak handiegiak direlako, bai alokairuak gehiegizkoak direlako eskatzen den ekoizpen motarako. Talde negoziazioaren sistemak ere jende asko enplegu gabe geratzea eragiten du. Europako ongizate sistemaren kostuek enplegua gutxiago haztea dakarte"*.

Bestela esanda, testu horretan ideia bat azaltzen zaigu, oso hedaturik dagoena, hots, Europako ekonomi erakundeak Estatu Batuetakoak baino "gizazaleagoak" direla, baina haiek baino errentagarritasun txikiagoa dutela. Aitzitik, baldin eta epealdi luze bat hartzen badugu, Europako ekonomia Estatu Batuetakoa bezain dinamikoa dela erakusten dute ELGEren estatistikek. 1968tik 1993ra bitartean Hamabien Europaren hazkunde-tasa Estatu Batuek baino zertxobait handiagoa izan da, eta biztanleko BEGa askoz azkarrago hazi da.

1980ko hamarkadan zehar, herri batzuek baldintzak jarri dizkiote nagusitzen ari zen egitasmo neoliberalari. Japoniak ezezik Norvegiak, Finlandiak, Austriak, Suediak eta nolabait Suitzak ere lankidetzara eta elkartasunezko gizarte eta ekonomiari eutsi diote, arlo horietan erabat jardun izan duen Estatu ereduaren arabera; herri horiek hazkunde-tasa nahikoa ona izan dute, eta horietan izan den langabezia (%3 bat 1990ra arte) Europar Batasuneko batez besteko tasa baino askoz txikiagoa da.

Egoera konplexu eta kontrajarri horiek ondorioztapen bat dakarte: Ongizate Estatuak taxutzen duen elkartasunaren iraupenak beraren berrikuspen eta eraldaketa du ezinbesteko baldintza. Gure abertzaletasunak behar den besteko sendotasuna eta behar bezalako eremua du eraldaketa horiei ekiteko. Gure ustez, **gizarte justiziaren egituraketa** ezinbestekoa da, halakorik gabe, aberastasuna hainbana banatu ezean, denok etorkizun bera eta aberriaren aurrerapena lortzeko sakrifizioerik egiteko gai ez bagara, gizarte zuzengabe eta bereizia izateaz gainera nazioa bera galdu egingo baita.

Oraindik batzuek uste dute Elkartasunaren printzipioa Estatu-nazioaren ekintza onura- garriaren bidez besterik ezin dela egituratu. Beraz, oraindik ere abertzaletasunak bazterketa arriskutsua eta lurraldearen eraskabeketa eta boterearen banaketa arriskutsuak eragiten dituztelako ideia zabalarazten dute. Bereizketa prozesuek gizarte ezberdintasuna sortarazten dutela esaten dute. Ez dute onartu nahi talde historikoen eskubideenganako begirunea hiritarren berdintasunarekin guztiz bat datorrela. Hala ere, ez dute aipatzen **norberekeriarako** joerak **elkartasun gabeko** kultura, arrazakeria eta **xenofobia** eragiten duela. Ez dute onartu nahi gizarte kontzientzia hondatzen ari den prozesu honetan Abertzaletasunak salbamendu agenteak direla.

Inolako zalantza-izpirik gabe, abertzaletasun demokratikoak elkarrekin integrazioa eta Europako herrien integrazioa lortzen laguntzen ari dira. Euskal Abertzaletasunaren erreferentzia eremua, beraz, Europa da. Baina ezin ditugu geure buruak nahastu. Europako Batasunaren eraikuntza prozesu honetan, ez da onartu nahi sorospidetasun printzipioa Estatukideen gobernuetara baino urrunago joatea. Europako Batasunean gaur egun dauden erakundeek demokrazi ments larriak dituzte, eta horien eraikuntza prozesua luzea eta konplexua da. Hori gora-behera, Euskadik **europazaletasuna** izan behar du aurrera ere, horixe izan baita azken mende honen erdialde osoan zehar bere gidalerroetako bat. Baina Europa federal baten alde sutsu agertzen den bezala ere, Europaren etorkizuna eraikitzen guztiok parte har ditzagula eskatu eta lortu behar du, Batasuneko gainerako kideak bezala demokratikoa, europazalea eta historikoa izateak ematen dion legebidezketasunean oinarriturik.